

uk

175. zenbakia / 2010eko maiatzaren 17a



Getxoko leku izenak

ezagutu, ikasi



Ibilbide Toponimikoak 2010

Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek?
Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

Udaberri honetan, 12 ibilbidetan, ezagutu Getxoko toponimia.

Martxoak 17	Asteazkena	18:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3.6 Km
Martxoak 26	Ostirala	18:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3.4 Km
Apirilak 8	Osteguna	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu zaharrea hasita	1 Km
Apirilak 13	Asteartea	19:00	Bolua-Santa Koloma-Bolua-Aiboa	2 Km
Apirilak 22	Osteguna	19:00	Telletexe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerrota-Bidezabal	3 Km
Apirilak 26	Astelehena	19:00	Bidezabal-San Inazio-Neguri	3 Km
Maiatzak 4	Asteartea	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu zaharrea hasita	1 Km
Maiatzak 12	Asteazkena	19:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3.6 Km
Maiatzak 20	Osteguna	19:00	Andra Mari-Sakuskane-Diliz-Andra Mari	5.9 Km
Maiatzak 28	Ostirala	19:00	Andra Mari-Diliz-Galea-Andra Mari	5.7 Km
Maiatzak 31	Astelehena	19:00	Bizkaia Zubia-Zugatarte-Ereaga-Igeretxe	4.1 Km
Ekainak 8	Asteartea	19:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3.4 Km

Ibilbideak euskaraz izango dira




Eskatu informazioa Udal Turismo Bulegoan edo deitu 688 635 350.
Izena eman behar da telefono honetan: 688 635 350



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Armetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepona Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKO: 900 940 111

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. *Zer ikusi ha ikasi* materialaren aurkezpena eta omenaldia.
- LEHEN ETA ORAIN. Trenbidea Negurin.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Arene Albizu eta Arkaitz Correa.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Dantza Eguna Leioan.
- ARGAZKIA. Iciar kargerua, Getxo.
- BERBETAN. Irati Jimenez.
- FOTOGRAFIA. Lamiako eraisten, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. *Baztan* Filma.
- MUSIKA. Bizkaiko Trikitixa Eguna, *Getxon*. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. *etxegiroan.com*. Erreseinak.
- KIROLAK. Kosta Trail.
- ELKARRIZKETA. Itziar Tueros, CAF-Elhuyar saria.

AMAITZEKO

- NORA JOAN. Urizar Garagardotegi Erretegia, Lemoiz.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Algortako San Inazio eskola, 1959-60.
- AITORMENAK. Iñigo Larrinaga.

Azala: Asier Mentxaka

www.ukaldizkaria.biz



30 Irati Jimenez

Berbetan

Kazetari eta idazle bermeo-mundakarrak literaturaz, sariez, proiektu barriez e.a. jardun du



11 Arene Albizu eta Arkaitz Correa



54 Iñigo Larrinaga

MÉGANE EMOTION

85cv dCi

10.600€*



1.000€-ko
deskontua
aukerako edozein
ibilgailu
erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT
OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak baim. Ikustaraziko eta eskaintzako bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea uztean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberri.com



Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Lehendakaria

Egun hauetan, Lehendakariaren jaurlaritzak urtebete egin du agintean. Hori dela eta, EITBko irratiek programazio berezia jaurti dute uhinetara. Nire uste apalean, larregi. Hasteko, Lopezegaz ordu beteko elkarrizketa. Eta gero, Ajuria Eneako beste horrenbeste gonbidatugaz, euren artean, Lehendakariaren egoitza ofizialaren lorezaina, edo Lehendakaritzaren idazkari nagusia den Manuel Salinero. Horrez gain, ordu bete eta erdiko tertulia eta zenbait kronika (neurea euren artean) urte honetan Lehendakariak zelan jardun duen aztertzeko, laburtzeko.

Ez dot esaten horrelako 'urtebetzean' Lehendakariak elkarrizketa merezi ez duenik. Ziurrenik jende askorentzat interesgarria suertatu da. Baina beste dana? Neure buruari galdetzen diot, kazetaritzaren ikuspuntutik soilik -irakurketa politikorik barik-, ea ez ote garen pasatu. Modu krudelagoan esanda: informazio publikoa baino, ez ote dugun egin propaganda hutsa?

Iritzia

Uribe Kostako kultur ondareari buruzko hausnarketa interesgarria oparitu digu oraingoan Armando Llamosas antropologo algortarrak.

Kultur Ondarea ote dugu?

Badu Uribe Kostak Kultur ondarerik? Monumenturik badugu? Bertako ondareak, Burgoskoa bestekoa ez izan arren, guretzat

«Askotan gogoratzen gara ondareaz arazoa sortu ostean, besteak beste, Punta Begoñako kasua»

garrantzia du, gure kulturaren eta gure nortasunean errotzen baita.

Askotan, gogoratzen gara ondareaz arazoa sortu ostean, besteak beste, Punta Begoñako kasua.

Bertakook jakin ez jarren, gure ondarea ez da makala. Aurre-historiari dagokionez Barrikan dugu Bizkaiko aztarnategi zaharrenetako bat, Kurtzian hain zuzen ere. Aztarnategia, ezin da ikusi, lurpean baitaude aztarnak; beraz, arkeologia-indusketaren bidez baino ezin da baloratu. Sopela eta Berangoko mugan Neolitoko megalito-gunea daukagu. Bistan daude aro horretako gizakien hilobiak. Gune-megalito hori, gainera, oso ondo seinalatzatu-

ta dago, hasieran zein amaieran, kartel batzuek ondo azaltzen digute horien zentzua.

Urteak joan urteak etorri, gure paisaian elementu asko agertu dira: elizak, baserriak (gero eta gutxiago zutik), gure lehenengo industriak (errotak, haizez edo urez, eta burdinolak), jauregiak eta arrantzaleen etxe xumeak; portuak, eta zelan ez, eskualdeko hiribildua, Plentzia. Batzuk ez dira nabariegia, beste leku batzuek konparatuz, baina oso duinak dira, eta, esan dugunez, gure nortasuna eta gure arimaren zati garrantzitsuak dira.

Dena den, ondare osoak guretzat garrantzia badu, elementu batzuek gure mugak hausten dituzte. Gure arkitektura garaikidea, hain zuzen, onenatariko bat da, eta kasu batzuetan, bere ospea urrun heltzen da. Gorlizko Erietxetik, Areetako bizitegi-gunera, lehenengo lerroko arkitektura garaikidea aurki dezakegu. Zer esan Bizkaia Zubiarri buruz? Gizadiaren ondare izendatua eta, ezin da ulertu zergatia, gure baimenagaz Portugaletek "bahituta". Ia-ia udalerriguztiek dute aipatzeko adibideren bat.

Gure udalek, egia da, ez dute laguntzen gehiegi herritarrok ondareen kontzientzia har dezagun. Hor daude, zentzu horretan, bere WEB orriak. Kasu batzuetan oso landuak izan arren, ondareei buruzko berriak, oharrak edo informazioak gutxi dira, turismoari dagokionez gehienetan. Bere ekintzak ere ez dira beti eredu onena, batzuetan presioagatik, beste batzuetan ezagutza faltagatik (bistan daude Algortako Portu Zaharreko baranda ospetsuak). Hala ere, administrazioa ez da errudun bakarra, hiritarrok dugu egin-kizun gehiena. Berdin zaigunean besteek egin dituzten erasoak (udalek, enpresek, auzokideek...) eta, batik bat, epe laburreko etekina bilatzen dugunean, ondarea, behin galduta, berreskurazina dela ahaztuz.

Armando Llamosas (Antropologoa)

[irudia]



FADURRA (GETXO), 2010EKO MAIATZAREN 8A

Informataleiei esker ona/ Eskualdeko euskararen berezitasunak eta bizimodua biltzen duen eskola materiala aurkeztu zuten maiatzaren 8an Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak. Lanbideak, jaiak, familia giroa... dena da garrantzitsua hurbileko historia ezagutzeko eta hurrengo belaunaldien artean zabaltzeko. Haur eta Lehen Hezkuntzan erabiliko den materiala aurkezteagaz batera, hori osatzeko elkarrizketatutako 120 euskalduni omenaldia egin zioten (argazkian ikus daitezkeenak). Izan ere, herriko historia bizia diren horietan esker egin ahal izan da guztia. Eskerrik asko zuei! ○ / Argazkia: Getxoko Euskara Zerbitzua

gu geu

Getxo, akordaten zara?

Maiatzaren 13an, San Isidro jaien egitarauaren barruan, *Getxo, akordaten naz* dokumentalaren II. parte estreinatua genuen Getxoko Andra Mari elizan. Askok izan ziren bertara batutakoak, barre eta malko artean, herriko baserri zein kalean gertatutakoak gogoratu edo ezagutu zituztenak. Eskerrik asko hurreratu zineten guztioi! Hala ere, seguru asko izan zinetela, arrazoi bategatik edo bestegatik, beharretik berandu urten edo tabernako eguen sozialak harrapatuta gelditu zinetelako, dokumentalaren estreinaldian egon ez zinetenak. Lasai egon lagunak. UKn ez dugu Getxoren (getxoztarren) oroimenaren altxor handi hori, egun bateko kontu bezala utzi gura. Horregatik, zuon esku ipini ditugu dokumentalaren kopia, oraingoan 3 euroren truke (herriaren historiaren pasarterik interesgarrienak garagardo biren truke, hori bai pagotxa!). Amezti kaleko bulegotik pasa eta Fredi Paiak, Aitor Gisasolak eta Fermin Aiok egindako eta UK-k ekoiztutako DVDa eskuratu!

Elkarrizketa eta fotograma artean galduta egon bagara ere, aldizkaria testuz eta argazkiz zikintzeko azitia izan dugu. Irati Jimenez Berbetan atalean, Lamiakoko eraispenaren argazkiak, Usoa Fullaondo artista algortarra, Lamiakoko maskaradako lagunak... goza itzazue!

UK-ko lantaldea



“80 egunean”

filma ikusteko **SARRERA BIKOITZAK***
oparituko ditugu.

Maiatzaren 24tik aurrera, astean zehar,
Getxoko zinemetan.

* **Deitu 94 491 13 37 telefonora
eta eskuratu zureak**

Bulego ordutegia:
10:00-14:00 / 16:00-18:00

Uribe Kostako aldizkaria



Iraganez doa denbora* beti / TRENBIDEA NEGURIN

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > galgoa



2010eko otsaila La Plaza taberna (Algorta)

Testua: **Josu Landeta**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Gorputz argala hanka luzeak (e)ta begirada ahaltsua, ondo jagonda lortua dozu gorputz eder gihartsua. Txakur orotan lehena zaitugu, lasterketari sutsua, jardun horretan zure hankei gogor dariela sua. Gero etiketaz jantzita legez, bazaitugu harrotxua; planta horregaz emoten dozu saloietako jauntxua.

2

Ondo erakutsiz gihar ederra, baina koipe motza zero, lehiaketetan zenbaki batez harro agertu (e)ta gero, pista batean lehian parako zaitue tinko (e)ta bero, gradetan, barriz, hamaika lagun, ikusle eta bezero. Hala ere kontuz, pauso faltsu bat gerta(t)u leikizu borrero, izar guztiak jausi ahal jatzuz erren suertatu ezker.


3

Gorputz gainetik arindu guran koipe motzaren hazkura, gizaki askori sortu ohi jako argal parateko ardura. Metrosexual (e)ta futinero lartxu jatazela ingura, inbiria hutsak jaten nau eta sakon sartu jat tristura. Baina ondo dakit, nik gura baneu izan halako piura, ondo kontrola(t)u behar neukeela neurrigabeko jangura.

* Doinua: Sekulabelardiko kantari

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidaliezaguzu atal honetan agertzea nahi zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

uk aldizkaria > interneteko facebook gunean gaude



UK aldizkariak webgunea ere abiatu du: www.ukaldizkaria.biz

Teknologiaren garaian bete-betean sartu da UK! Izan ere, dagoeneko interneteko *facebook* gunean topa dezakezu UK aldizkaria. Zehazki, Urbe Kostako Aldizkaria izena daroa gure txokoak, eta honezker, 300 lagundik gora dauka. Jendeagaz unean uneko harremana izateko aukera eskainiko dio aldizkariari, baita irakurleen kritikak eta ekarpenak zuzenean jasotzeko ere; jendeak mezuak uzteari ekin dio daborduko. Gainera, aldizkariak abiatuko dituen ekimenen barri emango du. Esaterako, maiatzaren 13an aurkeztu genuen *Getxo, akordaten naz* dokumentalaren bigarren atala, Getxoko San Isidro jaietan. *Facebook* gunearen bitartez lagun askok adierazi zuen bertaratuko zela. Bestalde, gogorarazi beharra dago UK aldizkariak orain gutxi abiatu duela webgunea (www.ukaldizkaria.biz). Bertan topatuko duzu aldizkariaren azken alea, aldizkariaren artxiboa, argazki zaharrak, barriak... On egin! o

sorkuntza > dinamik(tt)ak sorkuntza auzolandegia Artium museoan



www.dinamikttak.com gunean topa daiteke jakin beharreko guztiak

Gazteentzako sorkuntza auzolandegia egingo du Gasteizko Artium museoak udan, urtero legez. Uztailaren 5etik 16ra izango da, 17 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Jendarte eta kultura ekimena da, hezkuntza ez arautuaren barruan, udal-ku tankerakoa. Sorkuntzaren bitartez hausnartuko dute, "*ingurunearen eraldaketa sozialean eragiteko tresna gisa*". Hainbat talderen eta norbanakoren laguntza izango dute parte-hartzaileek: Spiral antzerki konpainia, jendarteari buruzko kultura erakunde kooperatiba eta NTICs Platoniq, Lucia Antonini, edota ikus-entzunezkoak eta telebista esperimenterako Neokinok sorkuntza kolektiboa. Ekainaren 4ra arte bidal daiteke parte hartzeko eskaera info@dinamikttak.com helbidera. Oinarriak www.dinamikttak.com gunean. o

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...haria

...lehengo garaia...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

bertsolaritza > eskualdeetako bertsolari txapelketak abiatu dituzte



Bizkaiko Bertsosale Elkarte: www.bizkaikotxapelketa.biz

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa jokatu da udazkenean, eta dagoeneko, giroa berotzen hasi da. Izan ere, eskualdeetako txapelketak jokatzeko ari dira. Herrialdea lehenengoz banatu dute zortzi eskualdetan, gure eskualdetik bi sortu dira: Uribe Butro (11 bertsolari) eta Uribe Kosta (15 bertsolari), parte-hartzaile kopuru handia dela eta. Hortaz, Leioa eta Erandio Txorierri gaz eta Mungialde gaz lehiatuko dira. Guztira 72 lagun dabilta parte hartzen. Uribe-Butroko finala maiatzaren 22an jokatu dute Derioko Gurea aretoan, 18:00etan. Uribe Kostakoa, ostera, ekainaren 12an izango da Algortako Villamonte Kultur Etxean, ordu berean. Bizkaiko Txapelketarako sailkatuko dira eskualdeetako txapeldun guztiak; 2008ko finalistak eta sailkapenaren arabera beste guztiak, 30 bertsolarik zerrenda osatu arte. Bost kanporaketa eta hiru finalaurre egingo dituzte, eta finala abenduaren 18an izango da. Bota bertsoa! ○

leioa > Mari Pepa eta Arlote aukeratu dituzte San Juan jaietarako



Orain urte bi hezur-haragitu zituzten lehenengoz herriko pertsonaia hauek

Hezur eta haragizko Mari Pepa eta Arlote bila dabilta Leioan. Donibane Jaietan ibili ohi dira herriko pertsonaia, ekitaldiz ekitaldi, herritarraz bat eginez. Herriko betiko pertsonaia jatorrak dira. Duela urte bi jarri zituzten herritarraz, lehen aldiz, Mari Pepa eta Arloteren azalean. Pertsonaioi bizitza ematen dieten herritarraz urtero aldatzen dituzte, eta iritsi da barriak aukeratzeko unea. Proposamenak eginda daude, eta orain, bozkatu beharra dago. Ekainaren 4ra arte egin daiteke, Kultur Leioaren webgunean, *Mari Pepa eta Arlote hautatu* atalean: www.kulturleioa.com. Bertan agertzen dira proposatutako bikoteen izen-abizenak. Ekainaren hasieran ezagutaraziko dituzte hautatutako lagunak zeintzuk diren. Donibane Jaiak ekainaren 23tik 27ra ospatuko dituzte aurten. ○

[erretratua]



“Lamia dantza entzuten dugunean... oso berezia izaten da”

A. Albizu Mari eta A. Correa Sugar > Lamiakoko maskarada

“**Egin ezazue gure ahotsen oihartzuna gure himnoez eta dantzez**”. Horrela abestuko dute lamiak aurten maiatzaren 28an egingo den Lamiakoko maskaradan. Arene Albizu eta Arkaitz Correa umetan hasi ziren; Mari eta Sugarren paperak egin dituzte urte askoan, nahiz eta Inguma, Eguzki eta beste zenbait pertsonaien azalean ere jarri diren. Joan den urtetik, dabilta antolakuntza lanetan, maskara alde batera utzita: “*Sartzen garenean gustatzen bazaigu... zaila da uztea. Gebienak lagunakaz etorri gara*”. 31 urte beteko ditu aurten Prudentziaren historia kontatzen duen antzezpeneak. Otsailetik maiatzera, domekara batzen dira Lamiakon dantzak eta kantzak ikasteko: “*Horrez gain, aurrekontuak eskatzea, udalagaz harremana, jantziak atontzea...*”. Beharra gogorra bada ere, adin guztietako lagun koadrila dago antolatzeke prest; auzoan oso errotuta dagoen ohitura da: “*Familietatik pasatu da; egun handia dela transmititu digute gurasoek. Lamia dantza entzuten dugunean... oso berezia da*”. Maskarak, soinekoak eta kapelak jantzita Lamiakon zehar dantzatzeko ordua heltzen denean ez ditu ezerk gelditzen, ezta euriak ere: “*Orain urte batzuk argi barik joan ginen; urten gura genuen, bost axola argia!*”. Ohitura zaharra bada ere, zeharo modernizatuta daude: “*Bloga eta facebook-a ditugu: lamiakomaskarada.blogspot.com*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Pletzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Proiektu handiak aurrera doaz

Getxo Antzokia eta Romoko Kultur Etxeko oinarritzko proiektuak **onartu** dituzte, **Aldapa auzoan** egingo duten **aisialdi eta jolas gunea** aurkezteagaz batera

Udalak datozen urteetan amaitu gura dituen proiektuak onartzen hasi da. **Getxo Antzokiaren eta Romoko Kultur Etxearen** proiektu erraldoien lehen faseari argi berdea emateaz gain, **Aldapa auzoan** urtea amaitu orduko egingo duen **aisialdi eta jolas gunea** zelakoa izango den iragarri zuen hilaren hasieran. **Azken honek 4.300 metro koadro izango du eta 1.100.000 euroko aurrekontua.**



Umeentzako jolasak eta kirola egiteko gunea jarriko dituzte Aldapan

Martxan dauden proiektuak aurrera jarraitzeaz gain, datozen urteotarako dituen asmoak aurkezten jarraitzen du Udalak. Apirileko udalbatzan, Romoko Kultur Etxeko eta Getxo Antzokiko egitasmoen oinarritzko proiektuak onartu zituen; horiekaz batera, Aldapa auzoan urte amaitu baino lehen egin gura duten aisialdi eta jolas gunearen zenbait ezaguri aurreratu zituzten.

Getxo Antzokiaren oinarritzko proiektuak metro bitan murrizten du eraikinaren garaiera eta 80 zentimetrotan urruntzen du Etxeandia Artzapezpikua kaleko bigarren zenbakian dagoen etxetik. Guztira, 22,5 metroko garaiera izango du eraikinak; Musika Eskolak barriz, behe solairua, beste altuera bi eta teilatupea izango ditu. EAJ eta PSE-EEren aldeko bozkakaz onartu da oinarritzko proiektua; Alternatibak eta PP-k aurka bozkatu dute, azken hau Antzokiaren altuera txikituz, etxeetatik aldendu eta

Musika Eskola beste toki batera erotearen aldekoa delako.

Romoko Kultur Etxeak 4.000 metro koadro izango ditu eta zortzi milioi euroko aurrekontua dago aurreikusita.

«Aldapa auzoan 4.300 metroko aisialdi gunea egingo dute: aire zabaleko kirola egiteko gunea, umeentzako rokodromoa, gimnasia aparatuak...»

Liburutegia, entsegu lokalak, auditorioa eta beste zenbat ekipamendu izango ditu sei solairutan banatuta. Kultur Etxe barria hartuko duen eraikina uda-udazken partean eraistea dago aurreikusita. PPK aurka bozkatu du honetan ere, proiektua ondo ikusi arren, exekuzioa-

gaz ados ez dagoelako.

Aldapa auzoan 4.300 metro koadroko aisialdi eta jolas gunea amaitu gura dute urtea amaitu baino lehen. 1.100.000 euroko aurrekontua izango du, Tokiko Inbertsiorako Estatuko Funtsetik. Oinezkoentzako ibilbideak zabaldu eta oztopo arkitektonikoak kentzeaz gain, aire zabaleko kirola egiteko gunea, kirol askotarako pista, umeentzako rokodromoa, gimnasia aparatuak, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte. Horrez gain, auzora sartzeko bidegorri tartea egingo dute Ollarretxe kalean.

Aisialdi gune barriak 52 zuhaitz izango ditu guztira; gaur egun dauden tamaina handieneko aleak kontserbatu, lekuz aldatu beharrekoak aldatu eta zuhaitz barriak landatuko dituzte pasealekuan. ○

Txakur eta jabeentzako

ordutegi eta lekuak, kontrolpean aske ibil daitezten



Galean, Aixerrotatik Sopolarako tartean askatu ahal izango dira txakurrak

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza barriari, hasierako onarpena eman zioten apirileko udalbatzan; neurri zehatzak jarri badituzte ere, ez dira berehala indarrean sartuko, ordenantza erabat onartua egon arte. Aipatutako neurriak, txakurrak (arriskutsuak izan daitezkeenak izan ezik) lotu barik, baina jabeen kontrolpean izateko leku eta ordutegiak zehazten ditu. Getxon 4.252 txakur dago erroldatuta; Keltse Eiguren Ingurune zinegotziaren ustez, neurri barriak *“getxoxtarren eta maskoten arteko bizikidetzaren oreka zail hori lortzen”* lagunduko du. Ordenantza diseinatzeko, Euskal Udalerrien Elkartearen (EUDEL) agiria hartu dute oinarritzat.

Txurruka moila, Areetako hondar-

tza, Portu Zaharrean itsasoari irabazitako gunea, Arrigunaga hondartza, Gobela ibaiaren paraleloan doan ibiltokia, Makaleta Etorbidea eta Galeako bidea Aixerrotatik Sopolako mugaraino; horiek izango dira txakurrak aske izateko erabili ahal izango diren gunek. Ordutegia aldiz, 21:00-08:00 urritik apirilera eta 22:30-08:00 maiatzetik irailera. Azken denboraldi horretan, ezin izango dira Areetako eta Arrigunagako hondartzak erabili.

Katuei dagokienez, barritasun nagusia, Udalak katu koloniak dituzten komunitateak kolaboratu ahal izango duela da, jabeek adostu eta eskatzen badute. Kolonia horiek, animalia kontrolatuen taldeak izango dira, era egokian entzututa, identifikatuta eta zainduta. ○

GETXO PASS TURISMO TXARTELA ETA MERCHANDISING BARRIA

Getxo Pass *“Getxo geratu eta gozatu”* txartel turistiko barria eskuragarri jarri du Udalak, udalerrian eskaintza turistikoa zabaltzeko asmoz. Horri esker, zerbitzu eta baliabide turistiko guztietan deskontuak lortu ahal izateaz gain, erabiltzaileei zigilu batzuk batzeko aukera emango zaie, ondoren Turismo Bulegoan merchandising produktu barrien truke aldatu ahal izango direnak. Zerbitzu edo bisita bakoitzak kolore bat izango du (horia, berdea, urdina), zerbitzuaren prezioaren arabera. Hiru koloreen konbinazioa lortuz gero, automatikoki, udalerriko orogarrira lortu ahal izango da. Txartela dohainik da eta Udal Bulegoetan, enpresa parte-hartzaileetan eta bisitariak doazen beste zenbait lekutan eskura daiteke. Merchandising produktu barriak Marina Goñi algortarraren diseinuak dira; katilu, txapa, kamiseta, kirol jertse eta erlojuen artean aukeratu ahal izango da.

1.150 IKASLEK PARTE HARTUKO DU ESKOLA JOKOETAN

1.150 ikasle parte hartzen ari da Getxo Kirolakek eta herriko ikastetxeek antolatutako dituzten I. Eskolako Jokoetan. Maiatzaren 7an hasi ziren eta hilaren 21ean (4. mailakoak) eta 28an (2. mailakoak) izango dira hurrengo saioak. Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailako haurren artean kirol ez-lehiakorren praktika sustatzea da jokoan helburua. 2011. urtean, 1., 3. eta 5. mailako haurren txanda izango da. Eskola jokoetan, atletismoa, herri kirolak, igeriketa, saskibaloia eta futbola praktikatzeko ari dira. LHko 2. mailako haurrek, herri kirolak probak bakarrik egingo dituzte eta jolas eta puzgarrietan gozatzeko aukera izango dute. Ez da sailkapenik izango, ezta kanporaketa probarik ere; hilaren 29an, zapatuan, sariak banatuko zaizkie parte hartu duten ikastetxe guztiei Fadrurako areto nagusian. Eskola kirolaren programazioak 2.000 parte-hartzailetik gora batu zituen izaz.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Bagastikoetxe Industrialea
Etxalde 2 - Pabioi 11
48330 Gortiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Usoa Fullaondo > Artista

“Zoria edo ezustea bertan dago, baina, artistak, nolabait, hori probokatzen daki”



Usoa Fullaondo artista algortarra

EHUko Pintura Sailean egin du doktore tesia Usoa Fullaondo algortarrak. Zoriak pinturan duen eragina aztertu du; zoriari garrantzi txikia ematen dion gizarte honetan, zoria bertan dagoela baieztatuz. Horregaz lotuta, erakusketa bi prestatu ditu, pinturarena bata eta kartoizko muntaiena bestea. Bilboko Belaza Galleryn ikusi ahal izan ziren apirilean, eta Azpeitian daude orain. Irailean, zoria ardatz izango duen talde erakusketan parte hartuko du Fullaondok Bilboko Rekalde aretoan.

—Zelakoa izan da Belaza Galleryn egin duzun erakusketa?

—*The destruction of art deco house* izena du. 2009ko Ertibil Arte lehiaketaren barruan aurkeztu nuen eta orain Azpeitiko denda batean dago ikusgai. Tenpera bilduma da. *Paint Russ Cyater* piezagaz batera aurkeztu nuen, kartoizko antzerkia. Proiektu ezberdin bi dira, nahiz eta nahastuta aurkeztu.

—Zertan datza bakoitza?

—*The destruction of art deco house* markoztatutako orbain pintura bilduma da; zerbait izateko aukera duen orbaina mar-

koztatu gura nuen, oraindino ezer ez den, nahiz eta zerbait iradoki dezakeen. Kartoizko piezak aldiz (*Paint Russ Cyater*), XVIII eta XIX. mendeetan umeez erabiltzen zituzten jostailuetan oinarrituta daude. 50 piezako segida egin nuen, antzokia berdina da guztietan, baina pertsonaiak aldatzen doaz. Kolore ezberdinetako orbainak dira pertsonaia horiek.

—Harremana duten erakusketak dira?

—Bai. Pintura markoztatu eta aurkeztu egiten dute biek.

—Zoria hartu duzu aztergai, zergatik?

—Zoriaren esku-hartzea sormen prozesu

piktorikoan; hori da doktore-tesian aztertu dudana. Tesiaren alde teorikoa gauzatzeko nuen heinean, antzerkien segida egin nuen. Norberaren pintzelada automatikoak aztertu gura nituen. Orain us-tekabearren gaia lantzen duen zirkua inguruko obra egiten ari naiz.

—Zer ondorio ateratu duzu zoriaren eta pinturaren harremanaren arteko azterketak horretatik?

—Sormen prozesu zehatz batzuk aztertu ditut, nire kasua horien artean. XX. mendeko arte espresionistaren zalantzak aztertu ditut: zoria dagoen, artistak zein

«Sormen aldetik proiektu interesgarriak daude; hori ez da merkaturatzen islatzen»

neurri arte eragiten edo manipulatu duen... Nik beti pentsatu dut zoria edo ezustea bertan dagoela, baina, nolabait, artistak hori probokatzen daki.

—Zelan ikusten duzu artista gazteen panorama gure inguruan?

—Artista gazteen panorama ez dago artista bezain gaizki. Gazteontzat badaude laguntzak, sariak e.a. Ezin gaitzke honetaz bizi, baina zerbait lor dezakegu. Zailena horretatik betiko bizitzea da. Modak daude, gaur goian gaude eta bihar behean. Zaila da sortzen jarraitzea, ogibide batez uztartu behar dugun.

—Zer behar du arte munduak?

—Artisten arteko elkatasun handiagoko ikusten da; askoren artean egindako proiektuak bultzatzen dira. Baina merkatuak gaizki egiten dio arteari; alde batetik sormena dago eta bestetik merkaturatzen. Sormen aldetik proiektu interesgarriak daude, baina hori ez da merkaturatzen. Zintzotasuna falta da. ○

Artisauak plazara

Hilaren **28tik 30era** izango da azoka Areetan; **80 artisauen** lana egongo da ikusgai



Artisauen beharra bertatik bertara ikusteko aukera egongo da azokan

Areetako Geltokia plaza eskuz behar egitearen artea menperatzen dutenen produktuez beteko da maiatzaren 28, 29 eta 30ean. XXVII. Getxoko Artisautza Azoka, 80 artisauen lanak hartuko ditu aurten. Goizez 11:00-14:30 eta arrastian 17:00-21:00 egongo da zabalik (zapatuan 21:30 arte).

Euskal Herriko 33 artisauagaz batera, Asturias, Kataluña, Andaluzia, Errioxa eta beste hainbat lekutatik hurreratuak egongo dira. Horiek guztiek, hainbat diziplina landuko dituzte. Aurten, larrua, beira, egurra, papera, harria eta beste hainbat materialez

egindako produktuak egongo dira ikusgai eta salgai. Gainera, Ibaiondo kalean, gazta, ogia, txokolatea, gozokiak eta jatekoak dastatu eta erosi ahal izango dira.

Azokaren antolatzaileek stand-ak apaintzeko modua eta diseinua sarituko dute. Eskulangileen beharra bertatik bertara ikusteko aukera egongo da; burdinaren forjaketaz gehiago jakiteko txokoa prestatu dute.

Artisautza azokan zerbait erosten duenak, goizean zein arrastian egingo diren produktu sorten zozketan parte hartzeko aukera izango du. ○

SENDIREN MAIATZEKO AZKEN EKINTZAK

Gustu guztientzako planak prestatu dituzte SENDIko lagunek (Egizu Euskara Elkarte) maiatzeko bigarren hamabostaldirako. Hilaren 20an Pello Añorga Oiartzungo ipuin-kontalaria ekarriko dute 5-7 urte bitarteko umeentzat. Arrastiko 18:00etan hasiko da emanaldia Zabala ikastetxean; izena ematea 18a arte egongo da zabalik. Zazpi urtetik gorakoek, zaldi gainean asteburu ederra pasatzeko aukera izango dute 22 eta 23an. Erandion ibiliko dira zaldiak hobeto ezagutzen egun bietan, arratsaldean. Honetan, hilaren 20a arte egongo da izena emateko aukera. Azkenik 28an, *Salam* antzezlanak ikusi ahal izango dute 5 urtetik gorakoek, Areetako Ludotekan, arrastiko 18:00etan. Honetarako, 26a baino lehen hartu behar da lekua.

Info. gehiago: www.blogari.net/send

HAURTZAINZA ETA PEDIATRIA IKASTAROA

BERDINTASUNA, Etorकिन Integratz eta Berdintasunaren Aldeko Elkarteak, haurtzaintza eta pediatria ikastaroa antolatu du maiatza eta ekainerako. Hilaren 17an hasiko dira eskolak, Algortako Villamonte Kultur Etxean, arrastiko 20:00etatik aurrera. Basurto Ospitaleko, Joseba Rementeria, Agustin Rodriguez, Gisela Muñoz eta Leire Madariaga izango dira irakasleak. Guraso eta gazteei zuzenduta dago ikastaroa eta parte hartu ahal izateko 10 euro ordaindu behar dira; izen-ematea 94 430 68 21 telefonoan eta berdintasuna.getxo@hotmail.com helbidean egin daiteke.

TIRANOSAUROAK TXURRUKA MOILAN

Urriaren 31 arte egongo da zabalik Areetako Txurruka moilako *Getxo Dinosaurio Parkea*. Tamaina errealeko 16 erreprodukziok osatuta dago erakusketa tematikoa. Goizez eta arratsaldean egongo da zabalik; nagusiek 3 euro ordaindu beharko dute sartzeko, eta umeek 2. Hogei lagun baino gehiagoko taldeek beherapen berezia izango dute.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
TÉ. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Rocio Claire > Mundialitoko jokalaria

“Etorkinok elkar ezagutzeko baliabidea da Mundialittoa, eta euskaldunen artean integrazteko”

Ezagun egin da azken urteotan Mundialito futbol txapelketa. Hainbat herrialdeetako futbol zaleek parte hartzen dute eta Sarriena zelaietan jokatzen dute. Rocio Claire boliviarrak da eta bost urte daroa Mundialiton jokatzen, Euskal Herrira iritsi zenetik.

—Zer da Mundialito ekimena?
—Futol liga da. Emakumeen mailan zortzi talde gara eta maiatzan hiru partida jokatuko ditugu bakoitzak, guztiok guztion aurka. Ondoren etorriko dira finalerdiak eta finala. Etorkinok elkar ezagutzeko baliabidea da, eta batez ere, euskaldunen artean integrazteko. Futbol talde bakoitzean hiru euskaldun daude.
—Emakumeen liga hasieratik jokatu da?
—Bai, baina ez zaio eman horrenbeste-ko garrantzirik. Orain zortzi talde gabilta, lehen 12. Baina orain 11 laguneko futbola jokatzen da, eta lehen, 8 lagunekoa. Agian talde batzuek zailago daukate jokariari lortzea eta horregatik jaitsi da talde kopurua. Emakume asko geratu da jokatu barik.
—Lehendik jokatzen al zenuen?
—Bai, txiki-txikitatik. Bolivian, nire



Domekaro jokatzen dabilta eta finalak ekainaren 19an izango dira, Barakaldoko Lasesarren

herrian, beti jokatu dut kalean, lagunak edota taldeetan. Beste kirol batzuk baino gehiago gustatu izan zait beti futbola. Eta jokariaren artean denetik dago, batzuek lehendik jokatzen zuten, eta besteak, orain gutxi animatu dira.
—Eta diozunez, etorkinok lekukotzeko ekimen garrantzitsua da?
—Batez ere horretarako, bai. Batetik, etorkinok elkar ezagutzeko eta lotura sortzeko oso baliagarria da.

Gutako asko bakarrik etorri ohi gara, eta askotan, bakarrik sentitzen dugu gure burua. Beste batzuk senideak datoz, baina normala denez, lagunak behar dituzte bizitza garatzeko.
—Lekukotzea ez da gauza erraza, lagungarri zaizue futbola?
—Hasieran asko kostatzen zaigu, betiko bizitza atzean utzi behar dugu. Eta ez gara guztiz lekukotzen; zaila da, baina saiatu behar dugu. ○

Barrez lehertu arte

Maiatzaren 20tik 23ra, **50 ikuskizun** Umore Azokan, **11 Euskal Herrikoak**



Egitaraua, ordutegia eta informazio osoa ikus daiteke www.umoreazoka.org gunean

Iritsi da aurtengo hitzordua, Umorean Kaleko Artisten Azoka izango da maiatzaren 20tik 23ra, Leioako erdigunean, plazaz plaza. Guztira 50 ikuskizun programatu dituzte, tartean 19 estreinaldi. Talde guztien artean, 11 dira Euskal Herrikoak.

Azken horien artean daude Leioako Despertar los sentidos dantza taldea, Ados Teatro eta Aukeran dantza konpainia, Carmen San Esteban, Eneko Balerdi, Oreka Zirko, Gaitzerdi, Hortzmuga, En la lona, Kolectivo Monstrenko, Tearto eta Trapu Zaharra.

Antzezpenerako hamar agertoki finko egongo da, Udondoko Boulevarra barne, eta hainbat ikuskizun ibiltari.

Halere, eta kaleko jaialdia bada ere, Kultur Leioan ere antzeztuko dute lanen bat.

Egun osoan zehar gozatu ahalko da lanotaz: goizetik gaueko azken ordura eguena, bariku eta zapatuan, eta goizez domekan. Horiekaz batera, Antonio Mingote marrazkilaritari buruzko erakusketa ikus daiteke Kultur Leioan, ekainaren 27ra arte. Mingoteran eta beste marrazkigile askoren lanak daude.

Umore jaialdia 1995ean egin zuen lehenbiziko aldiz Udaleko Kultura sailak, areto barruan. Bost urte berandua, 2000n, jauzi handia egin zuten eta Umorearen Kaleko Artisten Azoka izena hartu zuen jaialdiak. ○

Lamiako jaietan

Barikua 28

- 16:30: Txupin jaurtiketa, jaien hasiera.
- 17:30: Maskaradaren lehenengo zatia, puzgilearen biribilgunean.
- 18:30: Maskaradaren bigarren zatia, txosna ondoan.
- 18:45: Pregoia.
- 20:00: Errekalde adinekoen abesbatza.
- 22:30: Maskaradaren hirugarren zatia, eliza ondoan.
- 24:00: Berbena: Aker taldea. Atsedendian 1. Irrintzi Txapelketa (02:15ean)

Zapatua 29

- 11:00: Umeentzako puzgarriak eta zezen mekanikoa.
- 12:00: Denak poteora!
- 13:00: 18. Igel Txapelketa eta 1. Txapel Jaurtiketa Txapelketa.
- 13:30: Patata tortilla eta paella lehiaketak.
- 16:00: 4. Tute Txapelketa.
- 16:30: Umeentzako tailerrak.
- 17:00: Futbito Txapelketa: 3. eta 4. postuak. Eliza ondoan.
- 18:00: Futbito Txapelketa: finala.
- 19:00: 1. Lamiako Rock Festival: Baketazo taldea.
- 22:00: Mozorro lehiaketa.
- 24:00: Berbena: Aizama taldea. Atsedendian kulero eta galtzontzilo lasterketa (02:00etan).

Domeka 30

- 11:00: Puzgarriak umeentzat.
- 12:45: Euskal dantza erakustaldia.
- 13:00: 2. Tiragoma Lehiaketa.
- 15:00: Herri-bazkaria.
- 17:00: Kapoeira erakustaldia.
- 18:00: Playback lehiaketa.
- 18:30: Guatekea.
- 19:30: Sari banaketa.
- 20:30: Txokolate dastaketa.
- 21:30: Azken traka eta jaien amaiera.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berrí
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSABIDE HORITZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bideberrí 27. behe eskalera
ALGORTA
94 430 75 96



[erandio]

Javier Diez > Astrabuduko Fotoclubeko kidea

“Interneten hasi ginen fotoclubagaz, flickr gunean gure argazkiak jarritz”

Urte bi daroa Astrabuduko Fotoclubak lanean. Argazkilari ez-profesionalak dira eta hilero egiten dituzte txangoak argazkiak ateratzeko. Oraintsu erakusketa jarrita daukate Josu Murueta Kultur Etxean; maiatzaren 27ra arte ikus daiteke.

—Zer ikus daiteke erakusketan?

—Gure lana bigarren aldiz erakusten gabilza Astrabuduan. Argazkilari ez-profesionalak gara eta guk egindako argazkiak dira. Lagina baino ez da; izan ere, bazkide bakoitzak bina argazki ekarri du, asko gara eta ez genuen erakusketa lar kargatu gura; 40 argazkitik gora batu dugu. Txangoetan hartutako irudiak dira, bakoitzak aukeratu ditu gustukoena.

—Izan ere, hilero antolatu ohi dituzue txangoak, ezta?

—Hori da. Astero batzen gara Astrabuduko eskolan Udalak utzitako lokal batean, bilera egiteko. Gainera, hilean behin urteera ofiziala egiten dugu talde moduan, inguruko herrietara. Argazkiak egin, berba egin, argazkigintzari buruzko gaietaz jardun... Asteroko bilkuretako luzapena dela esan daiteke eta 15-25 bat lagun elkartu ohi gara.

—Astrabudukoak denak?

—Gehienak Astrabudua eta Erandiokoak



Euren argazkiak ikus daitezke <http://www.flickr.com/groups/astrabuduko-foto-club/> helbidean

gara, baina inguruko herrietako jendeak ere parte hartzen du. Internet bitartez gure jarduera ezagutu, taldea nola planteatu dugun gustatu eta gugaz etortzen animatu dira.

—Nolatan sortu zenuten?

—Bestelakoetan moduan, argazkigintza gustuko genuen bizpahiru lagun elkartu ginen orain urte bi. Jakin badakigunez, azken urteotan *boom*a bizi du argazkigintzak. Auzoan fotocluba antolatzea ideia txarra ez zela izango erabaki genuen,

ez soilik argazkigintza zaletasuna sustatzeko, beste eskaintza kultural bat egiteko ere. *Flickr* bitartez hasi ginen, interneten zaletuen argazkiak jartzeko gunea da. Pixkanaka hasi ginen egitasmoari forma emoten, eta azkenean, elkarte gisa osatu genuen taldea.

—Beste ekimenik egin ohi duzue?

—Urtean birritan egiten ditugu erakusketak. Gainera, tailerrak eta solasaldiak egiten ditugu asteroko bileretan. ○

Udal zaharra dotoretuz

Goikoa auzoko antzinako udalaren eraikinaren atzeko aldea barrituko dute udan



Goikolanda ikastetxearen patiora ez dadin eror ez teilarik, ez gainazal altxaturik

Erandioko antzinako udaletxea barritzen hasiko dira uda honetan. Goikoa auzoan dago eraikina, elizaren aurrean, eta lanen lehen fasea izango da udakoa. Zeregin horretarako 170.000 euro gorde du Udalak.

Eraikina 1890ekoa da, barritu beharra dauka. Atzeko aldea eta estalkia konponduko dituzte lehen epe honetan. Izan ere, helburua eraikinaren elementurik ezegonkorrenak konpontzea da, haren “atzealdean dagoen Goikolanda ikastetxearen patiora ez dadin eror, inoiz erori den modura, ez teilarik, ez gainazal altxaturik, ez beste ezer”, Udalak jakinarazi duenez.

Baina uda bitartean hilabete pare bat dago eta segurtasun neurriren bat edo beste hartu behar izango dute tarte horretan, ikasleak eskolan egon bitartean.

Batetik, goitik behera eror litezkeen harriei eta antzeko elementuei eusteko babes euskarria jarri dute. Bestetik, jolastokian segurtasun eremua ezarri dute; bost metro koadroko azalera dauka. Horietaz gainera, sare moduko bat ere jarri dute, “aurrerantzean ezer eror ez dadin”.

Gordetako diruagaz ez da nahikoa izango eraikin osoa konpontzeko, baina bai premiazko lanak egiteko, eskola-umeek arriskurik jasan ez dezaten. ○

NEKAZARITZA AZOKA ALTZAGAN, 30EAN

Goiz osoan zehar ikusi, erosi eta dastatu ahalgo dira nekazaritza produktuak Altzagan, maiatzaren 30ean. Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka izango da eta 50 postu jarriko dute metroaren zabalgunean. Gazta, ortuariak, euskal pastela eta txakolin lehiaketak egingo dituzte, herri-kirolen erakustaldia egongo da, baita ardiei ile mozketa ere. Gainera, txitxiburduntzia banatuko dute.

BISITA GIDATUAK ITSASADARRETIK

Aurten ere bai. Itsasadarretik bisita gidatuak egingo dituzte maiatzaren 30etik uztailaren 18ra, domekara. Bizkaiko ekonomiarentzako bide nagusia izan da itsasadarra hamarkadatan, merkantzien garraioa eta industriaren garapena erraztuz. Azken urteotako hirigintza eta ekonomia eraldaketa bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzera datoz bisita gidatuok. Altzagako kaitik abiatuko dira 11:30ean eta ibaian zehar ibiliko dira Bilboraino, zein Bizkaiko Zubiraino. Erandioztarrek lehentasuna edukiko dute parte hartzeko. Udaletxean edo Astrabuduko udal-bulegoan egin behar dute eskaera.

ASTRABUDUKO JUANENE PLAZA BARRITUKO DUTE

Fase bitan ekingo diote lanari. Horretarako, 307.000 euro gorde dute aurtengo aurrekontuetan, eta beste horrenbeste, 2011koetan. Uda pasata hasiko dute barritzapena eta sei hilabete iraungo du. Ibilgailuak Oleaga kaletik sartuko dira eta San Lorentzoko kaletik urten. Baina larrialdietako ibilgailuek eta bertako bizilagunek bakarrik edukiko dute baimena sartzeko. Era berean, aldi batean aparkatzeko gune txikia ezarriko dute, zamalanetarako. Lanokaz saneamendu eta ur horniketako sareak ere barrituko dituzte, eta amaitutakoan, paperontziak, jolastokia eta jesarlekuak jarriko dituzte.

Luberrí Basolanak, SL
Axpe Ibaizartza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrí@euskalnet.net
www.luberrí.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarmitze lanak eta emite lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarmitzea, egurastea, aratzea eta deslirinkotzea, berrifikatzea, soropila gaitzak eta belar gaitzoak tratatzea.
- Inausketak
Hasteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apalgarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

HERRITARREK KUDEATUKO DUTE GAZTETXEA

Baserriaren jabeek eta Gazte Asanblada sopoloztarrak akordioa sinatu dute, eta ondorioz, gazteek kudeatuko dute eraikina gutxienez hiru urtez. Horrek esan gura du "legearen barruan" erabili ahaliko dutela. Sekeko errota abenduaren 19an okupatu zuen Gazte Asanbladak. Lizarre auzoan dago, metro geltokiaren atzealdean. Orduetik lanean dabiltza gazteak, errota erabarrizten eta ekimenak antolatzen.

<http://sopelakogazteasanblada.blogspot.com>

BIDE ERTZEAN KURTZION MAIATZAREN 28AN

Tolosarrek *Leidor Sessions* diskoa aurkeztuko dute Kurtzio Kultur Etxean hilaren 28an, barikua, 21:30ean. Sarrera 3 euro kostatzen da, baina Udalak, kontzerturako 20 sarrera eta CD/DVDaren kopia bat zozketatuko ditu, ondoko galdera asmatzen dutenen artean: "Zein beste taldetan aritu izan dira Bide Ertzean-eko partaideak?". Erantzuna gazteria@sopelana.net helbidera bidali behar duzu maiatzaren 21 baino lehen.

TURISMO BULEGOAN ORDUTEGI ALDAKETA

Maiatzan eta ekainean ordutegia aldatuko dute Turismo Bulegoak (Loiola Ander Deuna kalea 28) eta Informazio Puntuak (Aretxabaleta enparantza 1). Hemendik aurrera biak zabalduko dituzte 10:00-14:00 eta 16:00-18:00 bitartean astelehenetik zapatara, eta 10:00-14:00 artean domekatarik.

UDALEKUETAN IZENA EMAN DAITEKE

Sopelan erroldatuta dauden 4 eta 12 urte bitarteko umeek udalekueetan parte hartzeko izena eman dezakete maiatzaren 31 arte. Uztailan eta abuztuan izango dira, bina txandatan. Prezioak eta udalekuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko udaletxera hurbil zaitezke.

Jai usaina giroan

Kresalaren ginetik, jai kutsua dario, **kartela eta pregoilaria aukeratu** behar dira eta



Informazio gehiago: www.sopelana.net

Udabarria aurrera doa, eta dagoeneko, San Pedro jaiak prestazeari ekin diote. Besteren artean, aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela eta pregoilaria aukeratu behar dituzte.

Kartela aukeratzeko lehiaketa egingo dute, maiatzaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira lanak Kurtzio Kultur Etxean. Gaiak Sopelako jaiak zerikusia izan behar du eta banaka edo taldeka aurkez daitezke lanak. Udalak jakinarazi du edozein formatu ontzat hartuko dutela, "beti ere era digitalean enabiltzeko aukerarik balez". Irabazlea eta irabazlea

ez den herriko lanik onena sarituko dituzte, 600 eta 150 eurogaz, hurrenez hurren. Oinarriak eta zehaztasun gehiago topa daitezke udalaren webgunean (www.sopelana.net).

Baina egongo da beste zereginik ere: pregoilaria aukeratu behar da. Pertsona edo talde bat proposatu gura izanez gero, bere garrantzia dela-eta, jakinaraz iezaiozu Kultura sailari, ahalik eta lasterren, kultura@sopelana.net helbidera mezua bidaliz edota 94 406 55 05 telefonora deituz. Posible bada, harremanetarako telefonoa ere zehaztu behar da. ○

Isa Alvarez > EHNEko kidea

"Taldeek zuzenean hartzen diote produktua ekoizleari, ardura partekatua daukate"



www.ehne.org gunean topatuko duzu informazio gehiago eta harremanetarako moduak

Maiatzaren 19an eta 21ean hitzaldiak eskainiko ditu EHNEk Sopelan, kontsumo arduratsua bultzatzeko taldeei buruz; lehena, Kurtzio Kultur Etxean, eta Eguzkik antolatutakoa bigarrena.

—Taldeok, zehazki zer dira?

—Pertsona talde batek zuzenean hartzen dizkie produktuak ekoizleei, inguruko baseritarrei. Nekazaritza ekologikoa egiten dute.

—Zergatik sortu ziren?

—Baldintza bik eragin zuten sorrera. Produktzio ikuspegitik, sektorearen egoerari irtenbidea emateko beharri erantzuten diote; izan ere, desagertzen zegoen, bitartekarien eta banatzaileen ereduaren aurrean. Bestetik, kontsumitzaileen zati bat konturatu zen beste elikadura mota bat nahi zuela.

—Azkenaldian ezagunak dira, moda kontua ote?

—Dagoeneko hiru urte darabate martxan eta ez dugu moda bihurtzerik

nahi. Ekoizlearen eta kontsumitzailearen konpromisoari erantzuten diote; ardura partekatua daukate. Hemen ez dago saltzailerik, ezta bezerorik ere. Guztiok gara gure elikaduraren erantzule. Modaz haratagoko konpromisoa da. Hau ez da gaur bai eta bihar ez; elkar ezagutzen dute alde batek eta besteak.

—Praktikan nola funtzionatzen dute? —Guneka, parte hartzeko interesa duten pertsonak bildu eta baserriak bilatzen ditugu. Kontsumitzaileek pla-

«Kontsumitzaileek planifikatzen dute saskia, euren behararen arabera»

nifikatzen dute produktu-saskia, euren behararen arabera. Beharrezkoa da plangintza baten arabera jokatzeko, ekoizpena eta banaketa planifikatzeko. Parte hartzeko gugaz edo ezagutzen duten talderen bategaz harremanetan jar daitezke jendea. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landu 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integratua urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
[Email: sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)



EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

URTEERA ETA TAILERRAK NAGUSIEN ETXEAN

Nagusien Etxeak hainbat ekimen antolatuta du maiatzaren eta ekainean. Batetik, Bilboko Euskal Museoa ikustera joango dira maiatzaren 18an. Bestetik, kontsumo jasangarriari buruzko tailerrak egingo dituzte ekainaren 10ean, Kontsumo gelak ekimenaren baitan. Ekainaren 2an eta 3an izango da izen-ematea. Edozein ekimenetan parte hartzeko izena eman behar da Nagusien Etxean bertan, eta guztiak izango dira doakoak. Horietaz gain, Dantzaldi herrikoia izango da maiatzaren 28an, barikua, 19:00etatik aurrera. Sabino Arana klean dago Nagusien Etxea.

HAUR LIBURUTEGIAN KARNETA BEHARKO DA

Inoiz ez da oso goiz literaturaren mundura azaltzeko, oraindino irakurtzen jakin ez arren. Horregatik abiatu zuten Haur Liburutegia, haurrak txikitatik jar daitezzen harremanetan liburuakaz. Baina maiatzetik aurrera beharrezkoa da liburutegiko karneta edukitzea Haur Liburutegira sartzeko. Karneta doan emango dute eta Berangoko Kultur Etxe bietan eska daiteke, bai Santa Anan, bai Berangoetan. Karneta egin ahal izateko gutxienez hiru urte eta Nortasun Agiria izan behar dute umeek. Agiririk izan ezean, herriko errola-agiria edota familia-liburua aurkeztu beharko da. Ondorioz, 2007an jaio, baina dagoeneko hiru urte bete duten umeak, Haur Liburutegira sar daitezke hemendik aurrera.

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 597 • garaizar@bouskalm.net
Eskatzen dugunak: ALGORTA

Txikien elkartasuna Maiatzaren 28an Elkartasun Azoka Berangoetan, umeen tailerretako lanakaz



Apirillean Liburu Azoka egin zuten

Elkartasun hilabetea da maiatza Kultur Etxeetako ludoteketan. Herriko umeek hainbat tailerretan parte hartuko dute, eta bertan egindako lanak, Elkartasun Azokan salduko dituzte, salneurri herrikoietan: agendak, boligrafoentzako potokak... Maiatzaren 28an izango da azoka, Berangoeta Kultur Etxearen kanpoaldean. Bildutako dirua ACOBI elkarteari emango diote, Bielorusiako Klimovichi umezurtegiari lagun diezaion.

Urtean zehar gisa horretako hainbat ekimen garatzen dituzte Udalak eta Kultur Etxeek (Liburu Azoka, Merkatu Txikia

Nekazal Azokaren baitan...) eta Gobernu Kanpoko Erakunderen bati ematen diote bildutakoa. Urtero aldatzen dute elkarte, eta aurtun, ACOBIri egokitu zaio.

Erakunde horrek Bielorusiako umezurtegiako haurrak ekarri ohi ditu uda guztietan Bizkaian aste batzuk igarotzera, eta Berangoko familia askok eskaintzen dute euren etxea. Horregatik aukeratu du Udalak elkarte. Izan ere, Berangogaz lotura eduki behar dute taldeek ekimenean parte hartu ahal izateko.

Maiatzan txikiak egingo dute ekarpena; gero gurasoek, seme-alaben lanak erosita. ○

Teresa Ellacuria > margolaria

25 erretratu paper gainean, olio teknikan eta formatu txikian



Teresa Ellacuria erakusketako lan bategaz

Estilo eta teknika ezberdin asko landu ditu Teresa Ellacuria plentzitarrek. Kanariar Irletan bizi zela, erretratuak egiten hasi zen, bere alabak erretratzeko gogoak bultzatuta. Azken hiru urteotan egindako lanakaz erakusketara osatu du; maiatzaren 17tik 31ra ikusgai egongo da Plentziako Goñi Portal Kultur Etxeko hallean.

—Zer ikusiko da erakusketan?

— 25 erretratu dira, olioak, formatu txikian (30 x 40) eta paper gainean; mihise batzuk egongo dira. Orain hiru urte, diru eta leku gutxi neukala ikusita, formatu txikian lan egiten hasia erabaki nuen. Nire alabak erretratatzeko nintzen. Izugarria iruditu zitzaidan, nire alabengatik sentitzen nuena islatzeko aukera ematen zidalako. Umeak asko aldatzen dira egun batetik bestera; erretratuak eginez, harreman

berezia sortu zen gure artean.

—Zergatik Plentzian?

—Ez nuen galeria pribaturik gura, erakusketara pertsonala baita. Familia Plentzian daukat eta sorpresatxo emateko aukera izan da.

—Zer da zuretzat margolaritza?

—Hizkuntza pertsonala da; barruan

«Nire alabak erretratatzean, harreman berezia sortu zen gure artean»

eroan dut txikitatik. Barrenak askatzeko behar-beharrezkoa dut.

—Zer behar dute inguruko artistek?

—Guztionez zabalik egongo den ikasteko gunea egotea gura nuke, Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan dagoena bezalakoa. Bertan egon nintzen eta aukera interesgarria iruditu zitzaidan. Museo politak ditugu, baina horrelako gunek falta dira. ○

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irati.aldorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

tanta.
estetika

BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saiok)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf: 645 739 780

Zure beharretarako araberako ordutegia



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEN GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86

ERAKUSKETAK ETA IKASTAROAK PLENTZIAN

Uztailaren 7, 14, 21 eta 28an egingo den lerrokako patinen ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da Plentzian hilaren 24a arte. Gutxienez 10 parte-hartzaile behar dira ikastaroa aurrera ateratzeko; materiala izena ematen dutenek eroan beharko dute. Erroldatuentzako 10 eurokoa izango da matrikula, gainontzekoentzat 30ekoa. Horrez gain, hilaren 30ean Bermeon egingo den Ibilaldia bizkaiko ikastolen jaialdirako ere autobusean izena eman daiteke. Goizeko 09:00etan urtengo da Plentziatik eta 5 euro ordaindu beharko da bertan, joan ahal izateko. Bestalde, hilaren 23an, Ibilgailu Klasikoen III. Biltzarra egingo dute Plentziako Astillero plazan. Goizeko 10:00etan hasiko da eta erakusketa ostein ibilbidea egingo dute herrian zehar.

GORLIZKO ITSASPEKO HUSTUBIDEKO LANAK

Itsaspeko hustubidea egiteko lanak hasi dira Gorlizen. Barrika, Gorliz eta Plentziako hondakinak itsasertzetik 700 metrora eta 25 metroko sakoneran botatzeko balio izango du hustubidea. Gaur egun hondartzaren mendebaldeko senaian jauritzen dira hondakinak eta horrek arazoak sortu ditu; hustubide barriari esker, itsasertzeko zikinkeriak eta hondakinak hondartzatik hurbil botatzeak dakartzen arazoak ekidingo dira. Hodiak jartzeko egin beharreko zulaketak ekainean hasiko direla aurreikusi dute; Astondoko hondartzako zati bat itxiko dute lanak iraun bitartean.

MANKOMUNITATEA

Udarako jarduerak prest, izen-ematea zabalik!



Barrika Piragua Taldeak parte hartu du Campus Barrikaren antolakuntzan

Uda heltzeaz dago eta horregaz batera udalekuak eta udako jarduerak.

Lemoizen eta Urdulizen Mankomunitateak antolatutako udaleku irekietan parte har daiteke; horrez gain, Mankomunitateko beste herri guztietan bezala, Euskaraz Olgetan programa egongo da martxan maiatzan eta ekainean. Azken horren egutegia, www.uribekosta.org web gunean aurki daiteke.

Barrikan, kirol Campusa egingo dute Abaroa tenis Kirol Taldeak eta Barrika

Piragua Taldeak. Ekainaren 28tik abuztuaren 20ra arte tenisa, piraguismoa eta ingelesa landuko dute parte-hartzaileek. Izena emateko campusbarrika@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Gorlizen, Troka Abentura enpresa arduratuko da udalekuez. Ekainean zabalduko dute izen-ematea eta 94 677 42 65 telefonoan edo www.troka.com gunean egin beharko da. Plentzian, hilaren 30a arte egongo da izena emateko aukera Goñi Portalen. ○

Mai. 17 - Mai. 31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

MUSIKA

GETXO

► **Munduko sabaia folk kontzertua.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 22an, 20:00etan. 10 euro.
► **Bizkaiko Trikitixa Eguna.** Algortan. Maiatzaren 23an.

BERANGO

► **Dantzaldi herrikoa.** Nagusien Etxean. Maiatzaren 28an, 19:00etan.

SOPELANA

► **Bide Ertzean.** Kultur Etxean. Maiatzaren 28an, 21:30ean. 3 euro.

ERANDIO

► **Udabarriko kontzertua.** San Agustin elizan. Maiatzaren 28an, 20:00etan.
► **Dantzaldiak orkestragaz.** Irailaren 23a plazan. Maiatzaren 30ean, 17:30etik aurrera.

GORLIZ

► **Bentazaharreko mutiko alaiak (erromeria).** Iberrebarrin. Maiatzaren 29an, 18:30ean.

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Bosteko 2010.** Algortako Torrene kaleko erakustaretoan, ekainaren 15era arte.
► **Dinosaurio parkea.** Txurruka kaian. Urriaren 31 arte. Helduek 3 euro, umeek 2 euro.

ERANDIO

► **Astrabuduko Fotoclub.** Josu Muruetako Kultur Etxean. Maiatzaren 27ra arte.

PLENTZIA

► **Teresa Ellakuriaren margoak.** Goñi Portalen. Maiatzaren 31 arte.



UK-k filma ikusteko sarrerak dauzka, eskuratzeko deitu ondoko telefonora: 94 491 13 37

► Zinema

80 egunean filmaren estreinaldia Getxon

"Asun eta Maite, nerabezaroko lagun minak, 50 urte egon dira elkar ikusi barik. Barrero topo egin eta zeukaten kimika bizirik dagoela sumatuko dute. Axolagabe dibertituko dira elkarregaz, Axun, Maite lesbiana dela jabetu arte. Sentimenduak dudatan jarriko ditu: zer jarraitu, burua edo bihotza?". Istoriario desberdina kontatzen du 80 egunean filmak, eta euskaraz. Jose Mari Goenagak eta Jon Garañok zuzendu dute, maiatzaren 21ean estreinatuko dute Euskal Herriko 12 herritan, Getxoko Lauren zinemak tartean. Ondoren zabalduko da Euskal Herri osora. Eta UK-k, gainera, sarrerak banatuko ditu irakurleen artean. Aldizkarira deitu eta eskatu besterik ez daukazu.

• **Non:** Lauren zinemetan • **Noiz:** Maiatzaren 21etik aurrera

ZINEMA

GETXO

► **Celda 211 (Zine-kluba).** Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 21ean, 22:00etan. 2,90 euro.

LEIOA

► **La ola (alemaniar zinema zikloa).** Kultur Leioan. Maiatzaren 18an, 20:00etan. 2 euro.

► **La caja de Pandora (alemaniar zinema zikloa).** Kultur Leioan. Maiatzaren 25ean, 20:00etan.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Umore Azoka.** Herriko plazetan eta kaleetan. Maiatzaren 20tik 23ra.

URDULIZ

► **Ipuin kontalaria.** Kultur Etxean. Maiatzaren 21ean, 18:00etan.

SOPELANA

► **Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak.** Urko kiroldegian. Maiatzaren 22an. 16:00 eta 18:30.

ERANDIO

► **Nunca nos regalaran flores. (Emakumeak eszenan zirkuitua).** Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzaren 23an, 19:30ean. 2 euro.

GORLIZ

► **Potxin eta Patxin pailazoak.** Iberrebarrin. Maiatzaren 28an, 18:00etan.

GETXO

► **Nora zoaz txanogorritxo? (Haur antzerkia, Deabru Beltzak konpainia).** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 30ean, 18:00etan. 4 euro.

BESTEAK

LEMOIZ

► **Euskaraz olgetan.** Urizarreko eskolan. Maiatzaren 17an eta 24an.

BERANGO

► **Euskal museora urteera.** Nagusien Etxea. Maiatzaren 18an.

GORLIZ

► **Automakillaje ikastaroa.** Kultur Etxean. Maiatzaren 28an, 17:30ean.

LEIOA

► **Lamiako maskarada.** Maiatzaren 28an. Lehen zatia 17:30ean, bigarrena 18:30ean eta hirugarrena 22:30ean.

GETXO

► **Eskulangintza Azoka.** Areetako Geltokia plazan. Maiatzaren 28tik 30era. Doan.

ERANDIO

► **Nekazaritza eta abeltzaintza azoka.** Altzaga auzoan. Maiatzaren 30ean, goiz osoan zehar.

BARRIKA

► **Campus Barrikan izen-ematea:** campusbarrika@gmail.com.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Leioa dantzan

Apirilaren 29an Dantzaren Nazioarteko Eguna izan zen. Hori ospatzeko adin eta estilo ezberdinetako dantzariak batu ziren Kultur Leioan, mugimenduaren arteari omenaldi ederra eskaintzeko. Helena Golab dantzariak, Despertar los sentidos eta La Macana dantza konpainiek eta Andoni Aresti Dantza Eskolako lagunek dantzatu zuten, besteak beste. Ikus daitekeenez, ez zuten eszenatoki beharrik izan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Iciar **kargaontzia**

hondoratzen

Hiru bidaia egin zituen Ingalaterrara, Bizkaiko meatzetako burdina eroateko. Itsas Zuriko portuetara ere bidaiatu zuen, Errusiara, gerra-tresneria eta horniketa garraiatzeko. Azken bidaiari Santanderren porturatu behar zuen, baina Kantabriako hiriburua *nazionalen* esku zegoen daborduko. Ondorioz, Belgikako portu batean lehorreratu zen. Handik Bilbora bueltatzea lortu zuen, nazionalen talde baten laguntzagaz. Beranduago, 1960an, *Isleña Maritimari* saldu zioten. 1963an hondoa jo zuen Santurtzin, eta egun gutxian, itsasoak txikitu zuen. Tripulatzaiak onik atera ziren. Ontziak 6.400 tona pisatzen zuen eta 110,64 metro luze zen.

[berbetan]

“Mila gauza: kazetari aritu naiz etengabe, irratian baino lehen telebistan, eta orain denetarik, baina beti kazetari, hori da nire funtsezko lana momentu honetan”, Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da Irati Jimenez (Mundaka-Bermeo, 1977). Euskadi Irratian ibili zen lanean, Eroskiren Consumer aldizkariaren euskarazko edizioa koordinatzen du, Sautrela telebistako literatura programarako ere noizbehinka kolaborazioak egiten ditu eta Nabarra aldizkariako arduraduna izango da ekainetik aurrera. Idazle legez umeei begirako biografia eta eleberri bi plazaratu ditu.

Irati Jimenez

oinorde “eragozpenei” tinko aurrez

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Kazetari jardunean, eta literaturari dagokionez, txikitatik idatzi duzu. 2006an argitaratu zenuen *Bat, bi, Manchester* (Elkar) lehenengo lana eta iaz *Nora ez dakizun hori* (Elkar); hurrenez hurren, Agustin Zubikarai nobela laburren lehiaketan irabazle izandakoa eta Igartza Sarian akzesita lortu zuena. Lehiaketan babesean argitaratzeko bideari zer deritzozu?

—Horiek baino lehen kazetaritaztik hurbilago dagoen *Malcom X: Duintasunaren kolorea* (2002, Txalaparta) idatzi nuen, baina fikziozko lehenengoa, bai, 2006an. Lehiaketena literaturgintzan hasteko modu bat izan zen. Nire kasuan, psikoanalisi-edo eginda, izan liteke neurri batean, modu bat, ez dut esango beste batzuk zikinak direnik, baina akaso niretzat garbia zena; hor dagoelako aitaren abizena, izena eta itzala. Beste era batera ere has daiteke, zirriborroa aurkeztu argitaletxei, lanbide bidez edota aitaren bidez baneukan hori egiteko gaitasuna. Baina, lehiaketak, iruditzen zitzaidan, modu garbiagoa, zintzoagoa; neure burua epaitzeko ere bai, azken finean, norberak ez daki oso ondo nola idazten duen...

—Beterriko Liburua aipamena jaso barri du *Nora ez dakizun hori*-k, benetan idazlearen artean estimu handiko saria dena.

—Sari oso berezia da, ilusio ikaragarriagaz hartu dut. 111 Akademia ekimen oso ederra da, irakurleen arteko kluba sortu gura izatea interneten oso berezia da; entretenitua hango iruzkinak irakurtzea, irakurlegoari buruz asko ikasten da. Irakurlegoa da euskal literaturaren altxorra, bestela zertarako ari gara! Irakurleen saria eskuratzeak, beraz, poz itzela eman dit, asko hunkitu nau.

“Modu oso inkontzientean idazten dut, gutxitan dakit zer idazten nabilen; gero hasten naiz konturatzen...”

—Zergatik uste duzu aukeratu dutela? Islatu gura zenuena jaso dutelako dateke...

—Modu oso-oso inkontzientean idazten dut; pentsatzeko ere ez den moduan, gutxitan dakit zer idazten nabilen. Behin idatzita, denboragaz, liburuaren inguruan hitz egiten hastean, irakurleakaz nagoenean, orduan hasten naiz hausnartzen eta konturatzen zer idatzi dudana, zergatik, zein momentu-

tan. Liburu honegaz ez dakit, zergatik pertsona batzuek konektatu duten horrenbeste. Liburu oso zintzoa da, nahiz eta ez dirudien. Liburu batean agertzen badira hain irudi mitikoak, likantropoak, aingeruak, arima kondenatuak, banpiroak e.a. ez dirudi zintzoa izan litekeenik, baina bada. Metafora, mito... guztiak erabili nituen nire egia batzuk kontatzeko: aitatasunari buruzkoak, zer esanahi duen fikzioak nire bizitzan, maitasun poz eta garratzasun batzuk... Ez dakit zintzotasun horrek erakarri dituen

irakurleak; inoiz ez da jakiten nola asmatu irakurleakaz. Ez nuen espero oso saldua, irakurria izatea... itxaropena oso txikia zen neurri horretan. Hala izan da, eta horrek hunkitu nau. Irakurle batek esan zidan: “ez dakit, utzi dit poztasun bat...”, asko hunkitu ninduen; hori uzten badu, lortzen badu konexio hori, bejondeiola!

—Aitaren itzala aipatu duzu: aita, idaz-



lea... zer emon eta zer kendu dizu?

—Modu oso pozgarrian bizi dut aitaren aitatasuna, nobelan ere ageri dela uste dut: Eliasengan mamitzen dena, modu positiboa; neurri batean, aita da: ipuinak kontatzen dituena. Hori izan da aita nire bizitzan. Edorta Jimenez idazlea da, eta oso senez da idazlea, modu sakonean, beti dabil istorioak kontatzen, ipuinak; alaba bezala oso hunkigarria izan da, pozgarria. Ez dakit ondo desberdintzen aita eta idazlea. Oso barnerrata daukat aita idazlea dela; ispiluaren alde bakarra dira irudi biak. Behin neure beldurak gaindituta, literaturari lotutakoak: ez ote nintzen abizen horren oinordekotzan txiki geratuko, ez ote zuen jendeak... Askotan esan dut Enrique Iglesias sindromea nuela (kar, kar)! Behin hori gaindituta, erosoago sentitu naizenean idazten dudana, aita eta bion artean dialogo oso polita ezarri dugu; beti hitz egin dugu asko literaturaz, ipuinez... Liburutik gauza asko aldatuko nituzke atzera begiratzean, baina aldatuko ez nukeen gauza bakarra eskaintza da, aitari egina, horregatik oso pozik nago. Espero nuen bere gustuko liburuaz izatea, gustatu zitzaion, eta asko poztu nintzen! Uste dut biok mantentzen dugula bata bestearen lanarekiko beharrezko distantzia; behin entzun nion biok daukagula gure kristalezko bihotza... Era berean, oso gustura entzuten ditut aitaren kritikak, orokorrean esateko dituenak; ez dira izaten asko, horrelakoa da, “hau horrela egin edo bestela honela egin” oso gutxi izaten dira, baina entzuteko modukoak! Eta entzuten ditut.

—Bere *Stock13*-ren azalaren inguruan artikulua idatzi zenuen, barrenak hala eskatuta ala inguruko galderek behartuta?

—Kristoren grazia egiten zidan! Ikusi nuen: aaaaaa! Begiak zabal-zabal! Banekien ikusi baino lehen, eta banekien ikusi behar nuela goiz ala berandu, azkenean goiz.... Nolabait sentitzen nuen, neurri batean, jendea begira nuela. Azal hori aterata iruditzen zitzaidan baietz, jendea eskandalizatuko eta zirikatuko zuela azalak, eta nik nolabait publikoki esan gura nuen, (nahiz eta senti-

tu... ez da hori alaba batek ikusi gura duena liburu-denda batera doanean) ospatu egiten dudala aitaren izateko modua; hori esatera dator artikulua. Benetan aita da berak gura duena, eta modu oso heterodoxoan gainera, norbere senari jarraituta, eta idaztearen plazerari. Nik hori miresten dut pila bat! Hori esateko zen artikulua, eta gero, benetan grazia handia egiten zidalako! Oso ondo pasa nuen idazten, idatzi dudantik beharbada

“Aitak nola egin duen zakila azalean jarri, nik horretaz askatasunez hitz egin; jendeak hori eskertzen duela uste dut”

jende gehiagori gustatu zaiona izan da, edo behintzat gehien komentatu duena. Hori da bidea beharbada; bada bai, zintzotasunez. Aitak nola egin zuen zakila azalean jarri, bada nik horri buruz askatasunez berba egin. Jendeak naturaltasuna, nolabait esatearren, asko eskertzen du. Mundu oso serioan bezala bizi gara eta batzuk ateratzen garenean jendeak antza eskertu egiten du.

—Itzal-mugarik ipini dizu?

—Ez... Batzuentzat bere alaba naiz, besteentzat bera nire aita da. Oso-oso sakonean daukat trauma edipikoren bat, edo ez daukat; behintzat terapian ez zait agertu! (kar)

—Batzuen ustez, emakumezko gazte idazle nahikotxoren lanak plazaratzea bultzatu da argitaletxeen “genero berdintasun behar-gogoek” eraginda, ondorioz ezbaian ipin-

“(Literaturan: gazte, emakume, genero berdintasuna...) Iruditzen zait, errespetu guztiagaz, eztabaida aspergarria”

tzen dute lanen literatur kalitatea.

—Iruditzen zait, errespetu guztiagaz, eztabaida aspergarria. Egunotan Bizkaiko Foru Aldundiaren liburutegira doanak bizkaitar idazle klasikoei buruzko erakusketa aurkituko du; Mogel, Lauaxeta, Aresti e.a., gizonak denak. Horiek epaitzen ditugu beren lanaren edo euskal literaturari egin zioten

ekarpenaren arabera e.a. Ez generoaren arabera, epaiketa horiek oso-oso azalekoak dira. Denboragaz emakumeak ere, dagoeneko badira urte batzuk hasi gara gizonetakoekin baino gehiago esaten, hori diote estatistikek. Normalena zen, momentu batean, emakumeak idazle ere izatea. Bidean zetorren prozesua normalean ageriko egiten da momentu batean, nolabait ura botatzen duzunean basora azken tantak eragiten du urak gainez

egitea. Tantz tanta, momentu batean, argakia asko aldatu da: pasa da erabat gizonetakoena izateko, ematen du erabat emakumezkoena izatera; ez da! Baina, nabarmena da. Idazten dugunak jarriko du nor bere lekuan. Batzuei gustatuko zaie Uxue Alberdik nola idazten duen, beste batzuei ez zaie gustatuko zaie Katixa Agirre... Belaunaldi baten parte naiz, emakumezkoak zein gizonetakoak gaude; zorionez, emakumezkoak ere bai. Bakoitzak egin du bere bidea eta ikusiko dugu jendeak nola hartzen gaituen, zein liburugaz asmatzen dugun, zeinengaz ez...

—Lar aspertu gura ez izanda, baina uste duzu gaindituta dagoela “emakumezko literatura” generoaren inguruko eztabaida?

—Ez naiz oso gai, eta uste dut zaila dela gau-

zak epaitzea, kritika ona zein txarra egitea barruan gaudenean, denboraren distantzia, zein distantzia fisikoa falta zaigunean. Zergatik deitu zuen arreta nik, emakume batek idaztea gizon biren arteko maitasun historia? Ez zeudelako horrenbeste. Uste dut denboragaz lotutako faktorea dela; gauzak normalizatzen direnean, eta asko daudene-

an, izango da beste bat; eta epaituko dute bere maila literarioaren arabera, epaitzekotan. Emakumezkoen literatura dagoen? Ez dakit. Zer zerikusi dute Patxi Zubizarretak eta Fernando Morillok? Itxura baten, gutxi; zerikusi gehiago dugu gure artean nik eta Katixak, nik eta Morillok baino? Esango nuke ezetz; ikusiko dugu, denboragaz. Ez dut uste generoa determinantea denik idazteko orduan.

“Orri zuri eta tintagaz *El amor en los tiempos del colera* edo *Mein Kampf* idatz daiteke; interneten berdin”

—Liburu digitalak ere aipagai izan dituzu noizbait: euskarri barria, sortzaile eskubideak e.a. Aukera eta erronka barriak.

—Gauza bakarra daukat argi: ipuinak bizi-raungo du; gero, oso txarra naiz asmakizunak egiten. Lagun batek kontatutakoa datorkit burura: “Google-en webgunea ikusi nuen pentasatu nuen: a zer desastrea!”, hara orain zer den *Google!* Antzekoa sentitzen dut kontu honetan. Euskarriak, jakina, aldatuko dira denboragaz. Adib.: doktore tesia egin behar duenarentzat askoz errazagoa izango da 200 liburuak halako makinan eramatea poltsa barruan edo poltsikoan, eta ez

200 liburuak liburutegia izatea! Idatzi nuen bere sasoian, “Liburuen polizia”; nik ez diot zelulosari inolako maitasunik eta argi da industria aldatuko dela moduren batean. Harelere, nik uste liburuak izango duela bere lekua, orain arte liburu bezala ezagutzen dugun euskarri fisiko horrek, baina ez dakit. Musikagaz gertatu dena niretzat oso pozgarria izan da; industria aldatu da, jakina pertsona batzuek sufrituko zuten, ontziolen ne-

gozia aldatzen denean bezala, berdin-berdin; baina orain inoiz baino kontzertu gehiago dago, eta musika zer den, zuzeneko musika da! Lata barruan, CDan sartutako musikaren bizitza laburra da, 50 urte dituen asmakizuna da. Egia da, musikariak orain ezin direla bizi latan musika sartzetik, nekez; baina egin dezakete musika zuzenean. Hori zaleentzat ona da. Idazleak nondik biziko gara? Uff! Behintzat badakit inoiz, inoiz ez dudala esango, eta esaten badut eskubidea daukazu zaplaztekoa emateko kale erdian tutik esan gabe, Victor Manuelek esan zuena SGAEren inguruan, egile eskubideen inguru-

ruan: bazela garaia hori guztia arautzeko eta berak soilik sinesten zuela Guardia Zibila-gan. Guardia Zibila-gan ez! Hori baino lehen prest nago ia edozertarako. Egile eskubideen eztabaida hasi baino ez da egin, ikusiko dugu zer gertatzen den, baina orain, niretzat, internet aukera da, gainera horren kontra egitea itsasoaren kontra egitea bezalakoa da. Aukera da kultura horizontalagoa lortzeko, gero eta sortzaile gehiago egoteko, eta denok elkarri-zketa irekian parte hartzeko. Jakina, plaza publiko erraldoi globalizatu horrek baditu bere arriskuak ere, denak bezala, hiriburuek bezala. Norbaitek orri zuria eta tintagaz idatz dezake *El amor en los tiempos del colera* edo idatz dezake *Mein Kampf*; interneten berdin. Ikusten dudanean, esaterako, aspaldi honetan SGAErenak, onartezinak dira niretzat; hori guztia egitea, gainera askatasun indibidual batzuen mesedetan edo ustez haiek babestearren... Nekez sinets liteke. Eta zenbaterainoko boterea lortu duen, adibidez, esaten dutenez, webgune batzuk ixteko ahalegina egin zuten, ez epailearen erabakiz baizik erabaki huts-hutsez, administratiboz. Gauza horiek onartezinak dira, eta ezin dira egile-eskubideen izenean defendatu. Denok dugu kulturarako eskubidea, zenbat eta unibertsalagoa izan mundu hobean biziko gara. Bidea zein den ez dakit, badakit zein ez den. ○

Bilbotik, Nabarra-ko arduradun; “...eta ez errenditu”

—Ekainetik aurrera, erronka pareak: Nabarra aldizkaria Bilbotik argitaratzea eta zuzendari izatea.

—Nafarroako komunikabideen egoera asko sufritu dutenak Nabarreriarako lagunak dira; orain arte Nabarra argitaratu dutenak eta momentu honetan erronka horri aurre egin ezin diotenak, nahiz eta 1.000 harpidetunetik gora izan. Norbaitek esan zion besteari, besteak hari eta hark niri “Nabarra desagertuko da”; oso berriki izan da, atzoko kronika kontatzen ari naiz. Orduan, esan zidan “zuk hartuko bazenu... akaso, Bizkaian... diru-laguntzen ekosistema batean beharbada aukera izan dezake”. Pentasatu nuen: “gerta lite-

keen okerrera zer da? Proiektuak porrot egitea? Nolabait Nafarroan egin du, nahiz eta kolaboratzaile onenak eduki, ahalegin guztiagaz... Probatuko dugu Bizkaian”. Oraindik, abentura bat da, benetan; beharbada bizitzan sartu naizen abentura eroena, baina neurri batean, pozgarriena ere bai. Kazetari bezala urte asko eman ondoren, aukera daukadalako nik ere zerbait eraikitzeko, ez soilik besteek eraikitzen dutena kritikatzeko (kar, kar)! Igor Estankonak itzuli du berriki Alfred Tennysonen “Ulises” poema eta azken hitza da: “eta ez errenditzeko”. Horregaz akordatzen naiz, batzuetan, gainez egiten didanean lanak. Momentuz hori delako, lana...

lana esaten diot, baina ez soldataren truke egiten dena, baizik, momentu honetan behintzat, nola esan... euskalgintza, kontrara, ez... Lehen aipatu dut, aitaren liburu-azalari buruz idatzi nuela gauza bat apur bat makarra, umoretsua. Idatzi eta burura etorri zitzaidan: “eta hau norako?” Lagun batek: “Nabarrarako!”. Beraz, hori; jendeak jakin dezala: plazan jarraitzen duela, plaza irekia dela, gura duenak gura duena esateko, erabat heterodoxoa, zirikatzailea izaten jarraituko du, saiatuko gara; kulturaren ospakizuna izan gura duela, beste barik, kultura ahalik eta zentzu zabalenean; eta hortxe duela, nik gurarako nuke luzaroan. Saiatuko gara!



Akabo fandangoa!

Kitto. Ez dago atzera bueltarik. Eraitsi beharrekoak eraitsita, Lamiakoren itxuraldaketa aurrera doa. Etxebizitzak eta lantegiak zeuden lekuan orubeak eta garabiak daude orain. Apurka bota dituzte eraikin zaharrak, eta eurekaz batera, auzoko zati handi baten xarma. Asier Mentxaka, UK-ko argazkilaria, izan da prozesuaren lekuko; segurutik, Lamiakoren historiaren parte izango diren irudi garrantzitsuak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**











BETIKO

IKASTOLA

GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DEHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Lelioako Ikastolen Elkartaren ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Agoten bazterketa ardatz

Iñaki Elizalderen **Baztan** filmak grabatzen jarraitzeko laguntza jaso du



2011ko lehenengo lauhilekoan espero dute **Baztan** labeltik ateratzea

Martxoan filmatu zuen Iñaki Elizalde (Iruñea, 1970) **Baztan** bere estreinako film luzearen lehenengo zatia, finantzaketa osoa bermatuta izan barik. Nasa Producciones eta Lazo Visual etxeek ekoiztiko dute lana; finantzaketaren %60 bakarrik zuten ziurtagarria, 1,3 milioi euro, eta besteak beste, gainontzeko zenbatekoa lortu bitartean ekimena gelditu zen. Ostera, oraintsu jakinarazi du Nafarroako Zinema Institutuak 60.000 euroko diru-laguntza emongo diola **Baztan** filmari, horrenbestez, espero da Elizaldekin laster ekitea bigarren atalaren egitekoari.

Gidoia idazteko Michel Gaztanbidegaz alkarlanean jardun du Elizaldekin, eta lekutzeak Baztan, Ultzama eta Erronkarin grabatu dituzte. Kontakizunari dagokionez, alkar korapilatzen diren istorioz eta historiako pasarte osatzen da, denboran zeharreko saltoak eta loturak txirikordatzen dira, fikzioaren eta benetako gertaizun mugak lausotu... 2010eko udabarian pelikula bat filmatzen dabiltzan aktore biren haritik tiraka XVII. mendera

eroango gaitu Elizaldekin, eta 1936an ere geldialdia egingo du **Baztan**-ek. Biribiltasuna da filmaren ezaugarrietako bat zuzendari iruindarrak dioenez, eta erdigunea Baztan da. Biribiltasun horri loturik, zelan gizakiok behin eta barriz hutsegite berak gauzatzen ditugun ere kontatzea da Elizalderen helburuetako bat; hanka sartze horietako baten adierazgarri da zuzendari-

«Aktoreen artean daude Unax Ugalde, Kandido Uranga, Carmelo Gomez, Ramon Agirre e.a.»

aren ustez bazterketa soziala. Hori xede, berbarako, XVII. mendeko Baztanen agotek jasandako bazterketa da filmaren ardatz nagusietako bat. Horrez gainera, zinegintzaren gaineko filma ere bada, zinea zelan egiten den eta bere hizkuntza "jaiobarria" ikertu gura duena. Ia 80 aktorek parte hartuko du, herritar asko tartean, eta profesionalak adibidez: Unax Ugalde, Kandido Uranga, Joseba Apaolaza, C. Gomez, Ramon Agirre e.a. ○

Bizkaiko Trikitixa Eguna

Trikitilari, trikitixa eskola eta zale andana batuko dira **Getxora hilaren 23an**



Bizkaiko Trikitixa Elkartek antolatuko du jaialdia

Trikitiaren Eguna "ardatz nagusitzat instrumentu honen musika izango du eta bertan Bizkai osoko hainbat eskolako trikitilariak parte hartuko dute; kaleak kalejira eta emanaldien bidez alaituko dituzte eta eskolen arteko topaketak, herri-bazkariak eta erromeriak egitaraua osatu dute", jakinarazi du ospakizunaren antolatzaile Bizkaiko Trikitixa Elkartek. "Trikitilari eta zaleentzako" eguna Getxon lekutuko dute aurten eta hitzordua hilaren 23rako ipini dute. "Kalejirak, trikitilari eta eskolen arteko topaketa, herri-bazkaria, erromeria, denetarik izango dugu giroa alai-

tzeko!", azaldu dute arduradunek. Hala, orratzek eguerdia adieraziko dutenean hasiko da Algorta zeharkatuko duen trikitixa eskolen kalejira, eta topaketarako zita Tellaorri plaza izango 14:30ean. Alkarregaz bazkaldu ostean, Algortako Geltokia plazan 17:30ean hasiko den erromerian dantza egitera abiatuko dira, Gipuzkoa eta Nafarroako bost gaztek osatzen duten Triki Ta Ke taldeak uztartzen dituen trikitixa erritmoak eta estilo pope-roagoen doinueta gorpuzta astintzera. ○

Informazio gehiago:
www.bizkaikotrikitixaelkartea.com

diskoak

... Egunarekin
Lauroba
GOR



Aurreko diskoan **Gauko** istorioak kontatzen bazizkiguten, oraingoaz egunekoak datoz. Ez dakigu "lo sakonaren deskantsuaren eta freskotasunaren ondorio den, ala gaua luzatu eta egunak harrapatu bitarteko ordu horiek" eman dieten lana osatzeko ideia, baina 13 abesti freskok eta zuzenek osatzen dute.

Subiza
Delorean
Mushroom Pillow



Itxaronaldi luzearen ondoren azkenean kaleratu du Deloreanek **Subiza** lana. Laudorio ugari jaso du atzerrian, eta apirillean iritsi da gurera. Nafarroako Subiza herrian grabatu zuten, hortik izenburua. Pop eta doinu elektronikoetan are gehiago murgildu dira. Hans Krügerrek grabatu eta Chris Coadyk nahastu du.

Egon hadi lo...
Odolaz blai
Musikherria



Enkarterrietako taldearen estudioko bigarren lan luzea duzu **Egon hadi lo... ta jango haute**. Zabaldu gura duten mezua islatzen du: "alienazio garaian, artaldeari jarraitzea behartzen gaitu sistemak, zombien antzera jokatzen, ez pentsatzen, obeditzera; horren aurka egiteko deia da". Hardcore, metal eta punk estiloko 9 abestik osatzen dute lana.

Sopela > Bide Ertzean Trio

"Hiru ginen hasieran. Bost gara orain. Baina hiru izango gara taula gainean datozen emanaldi hauetan. Berezia bezain bitxia izango da. Baina ez nahastu, gero. Soilik udaberri honetan irauko duen "esperimentua" izango da. Saio hauek egin, eta segidan, bostak batera jarriko gara lanean berriro ere; hurrengo diskoa izango dena biribiltzera", jakinarazi du Tolosako taldeak. "Esperimentua" ezagutzeko aukera egongo da Sopelan (Kurtzio kultur etxea) hilaren 28an, barikua (21:30; sarrea: 3 euro). Taldekideek aurreratu dutenez, "Bide Ertzean Trio ez da taldearen planteamenduetatik hainbeste urrunduko. Baina erreperitorioa ere ezberdina izango da: Hasiera-hasierako doinu batzuk berreskuratuko ditugu eta berri-berriak diren abesti batzuk ere eskainiko ditugu".

Informazio gehiago:
www.bidertzean.com

folk kontzertua > "Munduko sabaiak"

Tadjikistan, Afganistan eta Pakistan go artistek eskainiko duten folk emanaldien bidez Pamir eta Hindu Kush mendikateen bihotzeko Badakhshan eta Txirral eskualdeen musika ezagutzeko aukera egongo da Areetako Andres Isasi Musika Eskolan hilaren 22an (20:00; 10 euro). Azaldu dutenez "Kondairazko Zetaren llibidea igarotzen zen eremu haietatik; eta euren ahots eta instrumentu tradizionalek mendeetan zehar, ingurunearen hurbilgaiztasunagatik, aldatu barik irau duen soinua hurreratuko dizkigute Getxora".



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean

Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki
Bixitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebia 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

etxegiroan.com "sutondoa"

Ipuinak eta literatura **pasarteak entzuteko** webgune apal eta interesgarria sortu dute

Idazkiek oraindino lekurik ez zutenean... Literaturak ahozkotasuna bakarrik zuenean bide... Ipuinak, kondairak, kontakizunak, ele zaharrak entzun egiten ziren. Gaur egun berogailuek ez dute sutondoen xarmarik eta paperak erre egin du ia desagerrarazi arte ahoztasuna eta entzuteko grina. Halere, badira herriz herri dabiltzan, oro har, umeak jomuga dituzten ipuin-kontalariak, edota literatura-musika errezitaldiak eskaintzen dituzten ausart gutxi batzuk. Eta bidegile barriak ere; amaraunari kritikatzan zaion harreman zubigile hotza izatearen ezaugarriari aurre eginez, bere baliabide- eskaintza oparo eta onuragarria aprobetxatuz, bidezidorrak sortzen dituztenak, bero-

«Euskaraz zein gaztelaniaz, umeei zein helduei begirakoak...»

tasun apur bat bilatuz. Horien artekotzat jo liteke Maria Uriartek, Osoiz Elkorobar- rutiak eta Tomas soinu-teknikariak sortu duten *etxegiroan.com* webgunea; zelanbaite- ko sutondo imajinario digitala. Azaldu du- tenez, *«Mimo eta maitasun handia darian lanak egiten ditugu etxeko estudioan. Narrazio labur, poemak, liburuen pasarte, haurrentzako ipuinak grabatu eta editatzen ditugu, musikaz batera. Gure gustuko testua*



Informazio gehiago: www.etxegiroan.com

aukeratu, mamurtu eta hots bihurtu. Ondoren, ipuina musikatu, ahotsa emeki 'labekatu' eta hori guztia zuen bihotz-belarrien gozame- nerako gauza bilakatu». Euskarazko zein gaz- telaniazko lanak daude entzungai, umeei eta helduei begirakoak, besteak beste hurrengo idazleenak: Uxue Apaolaza, Harkaitz Cano, M. Benedetti, Julio Cortazar, Ixiar Rozas, Lutxo Egia, Eduardo Galeano, Miren Agur Meabe, Arantxa Iturbe, Jon Maia, A. Mon- terroso, Eider Rodriguez, J. Sarrionandia, J. Cocteau, Elisabet Abeyà, Grimm Anaiak, Juan Kruz Igerabide, Antton Irusta, Maria- sun Landa, Tony Ross, Jon Suarez eta Pello Añorga, Ursula Wölfel e.a. ○

liburuak



Eguzki kolpea
Horacio Quiroga
Alberdania

Ipuinari perfektuaren dekalogo obratik hartutakoak dira Jesus Mari Mendizabalek Horacio Quiroga idazle uruguaiararen bildumatik aukeratutako eta itzulitako ipuinak. Quirogak XX. mende hasieran idatzitako beste hainbat ipuin ere jaso ditu.



Tigreak hondartzan
Maribel Aiertza
Elkar

Anderrek animaliak maite izan ditu txiki-txikitatik, hezur-haragizkoak nahiz irudimenezkoak. Etxekoengandik urrun, zirkoaren bizimodura ohitu da txikitatik, ezbeharrak edo patuak behartuta. Amak gutuna idatziko dio hil aurrean.

[kirola]

V. Kosta Trail abian

Lasterketan, mendi-ibilaldian edota familia-ibilaldian **izen-emateko epea zabalik**



lazko lasterketako irudia. Izen-ematea Forum Sporteko edozein dendatan ere egin daiteke

Kosta Trail kirol ekitaldiaren bosgarren ekitaldia abiatu du Forum Sportek, Salomon-en eta Lagun Aro Aseguruak-en laguntzagaz. Antolatzaileen esanetan, ekime- naren helburua *«kirola aisia gisa sustatzea da, eta, aldi berean, kausa on bati laguntzea. Izan ere, helburu solidario horri jarraiki, bosgarren edizio honetan izen-emateakaz batutako diru guztia Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioari emango zaio... Gainera, Uribe Kostako itsa- sertzza zeharkatzen duen ibilbideko paisaiaren edertasuna, ibilbideak hainbat zoru mota (belarra, asfalto, harria eta harea) tartekatzea eta bizitzan den giro ederra dira Kosta Trail probaren berezitasunak»*. Iaz kirol proba solidario horretan 1.600 lagun- ke parte hartu zuen, eta aurten gehiago izatea espero dute antolatzaileek.

«Bizkaian itsas mailan egiten den lehen mendi-lasterketa» hiru kategoriatan bana- tzen da, «ibilbideari eta zailtasunei dagoki- enez», hurrengoak: lasterketa, mendi-ibi- laldia eta familiarteko ibilaldia. Lasterketa atalean parte hartuko dutenek Arriguna-

gan hasi eta Plentziako hondartzarainoko 31 km-ak egin beharko dituzte, «zailtasun handieneko kategoria da eta esperientzia- dun atletentzat bideratua». Mendi-ibilbi- deari dagozkion 20 km-ek Sopolako udale- txea eta Plentziako hondartzarainoko bi- tarte lotuko dute eta amateurrei begirako ibilbidea da. Familiarteko ibilbideak aurre- koaren hasiera eta helmuga berak izango

«Ekainaren 13an egingo da Uribe Kostatik hainbat ibilbide dituen Kosta Trail-a»

baditu ere, 12 km-koa izango da, eta «adin guztietako parte-hartzaileentzat».

Kosta Trailen izena emoteko (beheko webgunean, edo Forum Sport-eko dende- tan) epea dagoeneko zabalik dago, ekaina- ren 13ra arte (lasterketakoa salbu, hilaren 7ra arte). Lasterketako partaide federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte, federa- tubakoek 20 euro; eta bestelako bi ibilbi- deetan parte hartu gura dutenek 4 euro. ○

Informazio gehiago:
www.forumsport.com/kostatrail

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIZOL moda




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 KASUMI 18 - ALGORTA

Itziar Tueros > CAF-Elhuyar saria Egilearen doktore-tesian oinarritutako artikuluari

“Labe Garaiek urteetan isuri hondakinek ez dute hainbeste toxikotasunik utzi”

CAF-Elhuyar zientzia eta teknologia dibulgazio sariak banatu dituzte eta Itziar Tueros algortarrak irabazi du Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio artikularen atala, **Bizkaiko Labe Garaien lorratzak Sopelako hondartzetan lanari esker. Sopelan Labe Garaiek isuri hondakinen arrastorik geratzen ote den ikertu du. Saritutako lanak argitaratu dituzte *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariaren maiatzeko zenbakian.**



Informazio gehiago: www.elhuyar.org

—CAF-Elhuyar saria jaso barri duzu *Bizkaiko Labe Garaien lorratzak Sopelako hondartzetan* artikuluari esker. Funtsean, zer kontatu duzu idatzian?

—Itsas ingurumen ikerketa egin nuen. Hainbat urtetan, Bizkaiko Labe Garaiek Sopelako kostaldean isuri zituzten hondakinak (eskoriak edo sarrak). Hondakin horiek metal astunen kontzentrazio altuak zituzten. Nahiz eta eskoriak inerteak izan, ez litzateke harriztekoa, horrenbeste denboran zehar itsasora isuritako eskoriek, itsas ingurunean ondorioren bat eragin izana. Helburu hori gauzatzeko, sedimentu laginak batu nituen eta honako azterketa motak burutu genituen: geofisikoak, kimikoak, toxikologikoak eta biologikoak.

—Zeintzuk dira azterketaren ondorioak? —Ikusi dugu urteetan zehar isuritako sarrak eta beste hainbat siderurgia-hondakinek ez dutela inguruan hainbeste toxikotasunik utzi. Metalen bioerabilgarritasun txikia eta material finen dispersioa direla eta, inguruan nagusi diren substratu hareatsuetan ez da bentosaren (itsaso hondoan sedimentuagaz harremanetan

bizi diren animaliak) egoera ekologikoan aldaketarik eragiteko adina aldaketarik antzematen. Dena dela, Gorrondatxe, Arriatera eta Barinatxe hondartzetan ikus daitezke Bizkaiko Labe Garaien lorratzak burdinezko hondar beltzaranetan. —Zure doktoretza-tesian oinarritu duzu, ezta? Tesi horren ondorioak direla esan daitezke? Sopelaz bakarrik dihar-

“Dena dela, ikus daitezke Labe Garaien lorratzak Gorrondatxe, Arriatera eta Barinatxeko hondar beltzaranetan”

du ala inguruko herrietako hondartzetaz ere bai? —Bai, ikerketa hau nire tesian oinarrituta dago, baina atal bat baino ez da. Izatez, ikerketak Euskal Herriko kostalde osoa eta estuario guztiak aztertzen ditu, metal astunen kutsaduraren ebulzioa 1995etik 2007ra aztertu zen uren

tratamendurako sistemen eraginkortasuna neurtzeko. —Epaimahaiak ere baloratu du artikulua ipuin moduan idatzi duzula, baina hori nola da posible? Nola egin duzu? —Tesiak edo artikuluko zientifikoak irakurtzeko neketsuak dira eta idazteko modua oso teknikoa eta zehatza izan ohi da. Hizkera erraza erabiltzen ahalegindu

nintzen, jende guztiak ulertzeko moduan; eta antza, ondo atera da kontua. —CAF-Elhuyar sariak euskaraz egindako lan zientifikoak zabaltzeko sortu zituzten, baina zu, euskaldun barria zara. Beraz, suposatzen dut sariak ilusio berezia egingo zizula, ezta? Ahalegin handia egin duzu? Harro sentituko zara?

—Asko poztu nintzen sari hau irabaztean. Euskara ikasten ari naiz oraindik, eta erronka pertsonala izan da dibulgazio artikulua idaztea. Nire tesia gaztelaniaz idatzi nuen, ingelesez ere artikulua idatzi nituen aldizkari zientifikoetan, baina euskaraz ere zerbait egiteko gogoia nuen.

—Sariok idazle barriek lanean jarrai dezaten motibatzeko ere sortu zituzten, eta tesien sarien kasuan, ikerlari gazteen lanak ezagutzera emateko. Zer deritzozu horri?

—Elhuyarren sari hauek aukera bikaina eskaintzen dute Euskal Herriko doktoretza-tesietan oinarritutako ikerketen proiektuak edota artikuluko zientifikoak publikoari zabaltzeko. Zoritxarrez, ez dago horrenbeste bide zientzia dibulga-

tzeko, eta beraz, gosesteakoa da Elhuyarren lana.

—Azti-Tecnalia Itsas eta Elikagaien Zentru Teknologikoan lanean zabilta, eta doktoretza-tesia bukatu ondoren, nola dago gure ingurua eta Euskal

ere, eta noski, uren tratamendurako araztegi esker. Oraindik hobetu behar ditugun hainbat gune dago (Ibaizabal, Deba, Urumea, Oiartzun), baina orokorrean, joera positiboa dela antzeman dugu.

“Elhuyarren sariok aukera bikaina dira euskal doktore-tesietan oinarritutako proiektuak edo artikulua zabaltzeko”

Herriko kostaldea? Izan ere, Ibaizabal itsasadarraren koloreak ez du ematen oraindik oso osasuntsua...

—Ondorio bezala ezan dezakegu metal astunen kontzentrazioa gutxitu egin dela azken urteetan, industria aktibitate ere murriztu egin delako, baina baita ingurugiroan egin diren kontrolei esker

—Zertan zabilta orain? —Orain nire karrerari bira bat eman diot. Itsas ingurune kimika utzi eta elikagaien kimikaren munduan murgildu naiz. Beraz, Azti-Tecnaliako Elikagaien Ikerketa sailean nago, elikagai osasungarriak garatzen (polifenoleak, antioxidanteak...). ○

aldizkaria **etxean**
jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Gebro / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Joseba Agirre > Paelletako zelaia

“Badugu urtean egun berezi bat, magikoa dena, Paella eguna”



“Paella Egunak badauka kanpokoak ere getxoztar bihurtzeko, getxoztar sentiarazteko zer edo zer berezia”

Urtean zehar sarritan pasatzen gara inguru honetatik, leku zoragarria naturagaz bat egiteko; lurra eta itsasoa elkartzen diren lekuetatik paseatuz, oinez edo seme-alabakaz bizikletan.

Baina badugu urtean egun berezi bat, magikoa dena, Paella eguna. Janaria aitzakiatzat hartuta adin guztietako eta mota guztietako getxoztarrak elkartzen garena jai giroan. Parranda mundiala, egun horretan bakoitzak gura duen bezala disfrutatzeo aukera du: batzuk sukaldatzen, beste ba-

tzuk mozorrotuta, eta gehienak dantzan, abesten eta abar.

Norbaitek esango du, eta ondo esanda gainera, zer arraio egiten du markinar batek Paella Egunari buruz berba egiten? Orain dela hamar urte, 2000. urte biritan etorri nintzen lehenengoz Paella Egunera, eta harrez geroztik, ez dut urte batean ere hutsik egin. Ez naiz getxoztar peto-petoa, ez naiz ATVa (de Algorta de Toda la Vida), baina Paella Egunak badauka kanpokoak ere getxoztar bihurtzeko,

getxoztar sentiarazteko zer edo zer berezia.

Guk Bizarra Lepoan elkartearen toldoan jai euskaraz egiteko aukera ematen dugu. Hor hasten gara goizean goiz toldoakaz, gero sua piztu eta hamarretako gozoaren ondoren paella egiten hasi, baina bazkaldu aurretik badugu denbora umeakaz jolasteko, kirola egiteko... eta bazkaldu ostean musika, abestu, dantzatu... Beste toldo batean bazaude etorri bisitan, eta toldorik ez baduzu etorri gurera, baina KONTUZ IBILI errepikatu egingo duzu eta, niri halaxe gertatu zitzaidan... ○

Toponimoa > Paelletako zelaia eta Galea

Galea (lurmuturra):

Galea izenak, amildegi, lurmuturra eta inguruan dagoen leku zelai handia izendatzen du, beraz paellak egiten diren landa hau ere bai. Landa hau eta gaur egun golf zelaia dagoen ingurua herri lurra izan zen, getxoztarrek abereak bertara erosten zituztenekoak. XIX. mendean Espainiako Ogasunak bere egin ostean saldu zuen, beste herri lurra bezala, eta Getxok lurra eta diruak galdu zituen. Paellak egiten diren landa eta golf zelaiko lur hauek Jose Maria Martinez Rivasek erosi zituen. Ingurua horma batez itxi eta bertan baratzak eta pinuak sartu zituen. Hori dela eta, ez ziren gutxi izan Gerra osteko beharretan bertan sartzen zirenak egurra zein baratzak hartzera. Gaur egun inguruan zer dagoen ikusita, golf zelaia, deigarria da 1881ean esaten zena: "Esta destinado a pasto comun gratuito y recreo de ganados. Produce hierba para ganado y para argoma para consumo de los vecinos convertida en abono". Leku askotan agertzen da dokumentazioan, behin baino gehiagotan bertan hondoratutako itsasontziengatik eta hori izan zen bertan itsasargi edo faroa jartzeko arrazoia.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

Urizar Erretegia

Familia giroak berotutako parrilla



Urizarreko lantaldea

Familia giroan sortu eta familia giroan hazi da Lemoizko Urizar Erretegi Garagardotegia. 1997. urtean zabaldu zituen ateak, Fernandez-Urrutia familiaren eskutik. Kanpoan zein barruan, familia edo lagunartean, talde handian egiteko adina leku dauka. Barruan, 170 lagunentzako jangela handia (bankuakaz) eta 70 lagunentzako jangela txikia (mahaia-kaz); kanpoan, 230 pertsona hartu ahal dituzten terraza bi, 10.000 metro koadroko berdegunea eta 150 ibilgailuentzako parkinga. Enpresa edo kirol talde bazkariak, zein familia ospakizun handiak egiteko leku aproposa da, beraz.

Jateko, edozein garagardotegitan aurki daitezkeenez gain (tortillak, oilaskoak, kroketak, piper beteak e.a.), eguneko menua eta txingarretan erretako haragia

eta arraina ere badute: lupia, urrurubua, txitxarroa, bisigua, Armintzako muxarrak, txuletoia, saiheskia e.a. Eta, Hernani edo Astigarragara joan barik, sagardotegiko menua dastatu gura duenak, aukera dauka Urizarren. Aldez aurretik eskatuz gero, bildots errea prestatzen dute.

Urte osoan dago zabalik, nahiz eta afaltzeko zapatu, domeka eta jai bezperatan bakarrik dagoen aukera. Jende asko hurbiltzen da: "Asteburuetan behar handia dago. Garagardotegiek harrera ona izaten dute orokorrean, zerbitzu egokia eta kalitatea eskaintzen badute, noski. Guztien poltsikoen esku dagoen eskaintza da". Gomendio batez bukatu dute "Etorri eta konta ezazu". ○

Andraka-Armintza errepidea 32, LEMOIZ
Tf. 94 687 93 00



JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

antebarnetan bazkari eta afariak enkargatzen
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Euzkian, Gabele erailkaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!

Alangoharri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

• Makiaga 26, GETXO Tf. 94 491 11 25
• Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
• Sabino Arana 57, LEIOA Tf. 94 464 40 56
• Tallentea 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
• Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURVENDI
Negunko Etorria 2 Anguruen etorb. 4B
Tf. 491 14 67 (Sanera, Jata Mendak) T. 460 01 87
48990 NEGIURI 48990 GETXO

ITXASGANE
 prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arribea z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

María Jesús
 ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
 Alangoberri 10
 Tf. 94 491 08 21
 ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
 "Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
 Prentsa - Fruin lehorak - Aliskariak - Licorariak
 Orduña Mendatea 1 Telftxe 13
 Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 400 02 88
 GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia

 Usategi parkea z.g.
 Algorta
 *Tf. erreturak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Gauzak ez dabilta zuk gura zenukeen bezain ondo. Egoera sakonki aztertu behar duzu eta zure bizitzan gauza batzuk aldatu. Zure esku dago; arriskatzen ez duenak nekez lortuko du ezer.</p>	<p>OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Lan arloan sasoi ezin hobean zabilta eta zure asmoak aurrera ateratzeko jarrera baikor horregaz jarraituz gero edozein gauza lortuko duzu. Baina argi ibili! Inguruko pertsona batzuk, zure helburuak zapuzten ahaleginduko dira.</p>	<p>ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Bikote-lagunik baduzu krisialdi gordina jasan dezakezue. Borondatea jarri zure aldetik eta saia zaitetz besteari entzuten, denboraldi txar hau gainditu gura baduzu. Diru arloan, egoerak hobera egingo du.</p>
<p>AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Osasun arazoak izango dituzu, batez ere, buruan eta sorbaldan. Ez dira larriak izango, baina atsedena hartzea komeni zaizu. Bestalde, kontuz egiten dituzun diru gastuakaz...</p>	<p>HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Pertsona bat ezagutuko duzu eta adiskidetasun handia sortuko da zuen artean. Bikotekiderik ez baduzu, aukera ona. Jarraitu zure bihotzaren aginduak eta emaitzak jasoko dituzu.</p>	<p>EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Azken bolada honetan ez zabilta batere ondo; saia zaitetz baikorragoa izaten eta ez ahaztu garai txarrak beti gelditzen direla atzean. Atera kalera eta gozatu zure adiskideen laguntasuna, hobeto sentituko zara.</p>
<p>GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Zu eta zure azukre koskorren arteko harremana izugarri sendotu da azken garai honetan, baina kontuan izan, irauango badu, maitasuna egunez egun elikatu behar dela, loreen moduan, haz dadin.</p>	<p>LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Proiektu barria proposatuko dizute; adi egon zaitetz, interesgarria izan daiteke eta. Oraindino ez baduzu zoriotsu egiten zaituen pertsonarik ezagutu, zabaldu zure bihotza eta gozatu!</p>	<p>IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Gauzak ez dira beti gura bezala ateraten baina lasai, ez galdu gogoia eta eutsi zure bideari, laster ikusiko dituzu zure ahaleginen emaitzak eta. Ez ahaztu maite zaituzten pertsonak zu laguntzeko prest daudela.</p>
<p>META (Irailak 17 urriak 16) Inguruko pertsona batek min handia emango dizu. Saia zaitetz indartsu izaten eta ez utzi zure burua zapaltzen. Diru arloan momentu onean zabilta, aprobetxatu.</p>	<p>HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Ez zaitetz samurkor izan; pertsona guztiak ez dira gaiztoak. Emaiozu beste aukera bat ezagutu duzun horri eta ez dizu atzera hutsik egingo. Zaindu zure harremanak.</p>	<p>NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Zeure ausardiak fruitu onak eman ditu, goza ezazu momentua, baina burua galdu barik. Diru arloan egitasmoren bat baldin baduzu, aurrera jarraitu, izarrak zure alde dituzu eta.</p>

Koskakideak behar ditugu irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
 E-mail..... Telefonoa.....


Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

**12€ urtean !!
 €1 hilean !!**

koskairratia@koskairratia.com
 k/ Amezti 6 4.pisua 2. dep.
 Algorta (Bizkaia)
 www.koskairratia.com

KOSKA
 irratia 108 FM


Bidali zure datuak
 posta elektronikoko edo
 posta arrunt bidez



HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUIN:

- [1] Haize musika tresnak, zahagiaren formakoak.
 [2] Likidoak aho estuko ontzietan kanpora isuri gabe sartzeko tresna, onil.
 [3] Bait da.
 [4] Bizkaieraz, omen. Oinarrizko edaria.
 [5] Irristakor.
 [6] Nor pluralean. Nasa, moila.



	1	2	3	4	5	6
1						
2						
3						■
4			■			
5						
6			■			

GOITIK BEHERA:

- [1] Atzea, ez aurrea.
 [2] Senide arrak.
 [3] Igarobide. Kontsonantea.
 [4] Hodiak.
 [5] Ataurrea.
 [6] Errepikatuz, txori mota. Animaliaen hasiera.

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Uribe Kostako zein auzoren eraispina ikus daiteke zenbaki honetako Fotografia atalean?

> Aurrekoaren erantzuna: Doctor Deseo

> Irabazlea: **Josu Borja***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zein animalia ikus daiteke zenbaki honetako 8. orrian?

- **Txakurra**
- **Astoa**
- **Marigorringoa**

> Aurrekoaren erantzuna: Surfa

> Irabazlea: **Ane Barrena***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Usategi kafetegia**

Usategi parkea z.g. Algorta
Tf. erreserbak: 94 460 64 13



SARIA **La Gusana liburudenda**

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



KOLDO RUIZEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO SAN INAZIO ESKOLA, 1959-60

Getxoko udaletxetik hurbil zegoen ikastetxe hau. Bere ondoan Guardia Zibilaren kuartel zaharra, eta geroago, barria egon ziren. Gaur egun ez dago ez kuartelik, ez ikastetxerik; den-dena aldatuta dago, etxeak eraiki dira. Argazkiko mutiltxoak 7-8 urtekoak, Don Isidro maisuaren ikasgelakoak ziren. Futbolari jantzita ditugu, bai, baina ez partida bat jokatzeko; horrela jantzi ziren, Athletic-en koloreez, argazkia ateratzeko eta kitto. Osasuntsu ageri dira, eta beharbada, izango da urte haietan eskolan egunero gazta eta esnea hautsean ematen zitzaizkielako; beraiek etxetik katilu bat edota ogia eroan behar izaten zituzten. Antza, Amerikako Estatu Batuetako laguntza zen aipatutakoa. ○

Zutunik: Mendizabal, Salva Uribarri, Anton, Jokin Fullaondo, Ricardo Kamiruaga, Raul (atezaina).

Makurtuta: Iñaki Gerediaga, Polo, Koldo Ruiz, Juan Ignacio Bidea, Elu Mansilla.

OHARRA: 173. zenbakiko Flash Back-en (Gorlizko Urezarantza Ikastola), irakaslearen izena Arrate Unzeta-Barrenetxea da.

[aitormenak]

IÑIGO LARRINAGA > aktorea

“Euskal aktoreoi lan eskaintzak ez datozkigu berehala, ezta asko ere”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Langilea eta puntuala.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu?

Hainbeste daude... Gandhi esango dut, ez datorkit beste inor burura.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Papera eta pertsonaia interesgarria izanez gero, edozeinetan. Euskal aktoreoi lan eskaintzak ez datozkigu berehala, ezta asko ere.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Ez daukat oroitzen handirik. Ikasketakaz ere ez neukan garbi zer egin. Hiru karrera neukan buruan eta kazetaritza egin nuen azkenean.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Nahiko maniatikoa naiz puntualtasunagaz. Gorroto dut jendearen zain egotea edo jendea nire zain edukitzea.

Beraz, aitor dezakezun bizio bat?

Tabakoa.

Zein da gehien gorroto duzun topikoa?

Kazetariak galdetzen didatenean, hainbeste urte eta gero, ea ez ote nagoen Koldoren pertsonaiagaz aspertuta.

Eguna ala gaua?

Gero eta gehiago eguna. Gazteagotan gaua, baina orain guraso naiz.

Zein da zure ametsetako bat?

Atsedena hondartzadun leku eguzkitsu batean, hausnartzeko etorkizunean zer egin gura dudana.

Parrandarik politenak non?

Durangogaz geratuko nintzateke, han ikasi nuen.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Bi. Etxebarri, nire herria, han hazi nintzen eta oroitzen onak dauzkat; eta Ondarru, bertan bizi naiz eta ondo hartu ninduten. ○

LABURREAN— ETB1eko *Goenkale* telesail ezagunak 3.000. kapituluak grabatu barri du. Aktore askok eta askok parte hartu du 16 urteotan, eta dagoeneko, asko aldatu da Arraldeko bizitza Lasa anaien garaitik. Hasierako pertsonaietatik bakarra geratzen da: *Koldo*. Aurpegia jartzen dio Iñigo Larrinaga etxebarritarrek (Bilbo, 1970), eta badauka bizitzarik *Koldoz* gainera. Oraintsu magisteritza ikasten dabil arrastietan; aurten amaituko du karrera, baina gainera, kazetaritza ikasi zuen gazetetan. *Zigortzaileak* filma estreinatuko du aurten, eta umeak, ikasketak eta *Goenkaleko* lanagaz, ia astirik ez zaio geratzen beste kontuetarako. Halere, tartetxoa egin dio UK-ri.

Zabaldu euskararen atea



Hauxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduaren errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50

gehienez 360 euro, euskara hutsez jartzen baduzu.

%30

gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehentasuna badu.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zuen errotulua, lehenengo bostetan, gainera, deskontu gehigarria egingo dizuete:

%10

eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu.

%5

ekoa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu.

HIZKUNTZA AHDULKULTURTA GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52
geh1@getxo.net

GETXOKO UGALDEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

Euskal Herria 23. 94 491 54 32

RÓTULOS PUBLIARTE

Bilboam 18. 935 752 373

CIANOPLAN

Parralua herria 11 kalea 67- Cile Vía de Perce 4. 94 664 83 72

ULI ARTE PERSIANAS

Andrés Cortina 4. 94 460 25 90

LA REPRO

Euskal Herria 10. 94 461 13 95

KISER

606 Nagusia 11- Mayor 16. 94 464 73 37

AMETS

Algorza 100. 94 460 10 31

RÓTULOS ARRILUCE

Arriluce kale 2/g- Muelle de Arriluce s/n. 94 461 00 83

XXVII

GETXO

ESKULANGINTZA AZOKA // FERIA DE ARTESANÍA

2010.eko MAIATZAREN 28tik 30era // DEL 28 AL 30 DE MAYO DE 2010



AREETAKO GELTOKIA PLAZAKO KARPAN // CARPA DE LA PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
Ordutegia / Horario: 11.00-14.30 / 17.00-21.00 Larunbatean 21.30ak arte / el sábado hasta las 21.30 h.

